



Irudia: Miguel Argibay

Gerra Zibila

Trauma, dolu eta memoria lekukotza autobiografikoetan

Juan Azcarate eta Luis Ariznabarreta *Amuategi Batailoiko* milizianoak Ipar Frontean

Begoña Ariznabarreta Orbea

Gasteiz, 2024ko otsailean

Gerra Zibila: trauma, dolu eta memoria lekukotza autobiografikoetan.
Juan Azcarate eta Luis Ariznabarreta Amuategi batailoko milizianoak Ipar Frontean.

Guerra Civil: trauma, duelo y memoria en testimonios autobiográficos.
Juan Azcarate y Luis Ariznabarreta milicianos del batallón Amuategi en el Frente Norte.

Guerre civile: traumatisme, duel et mémoire dans les témoignages autobiographiques.
Juan Azcarate et Luis Ariznabarreta miliciens du bataillon Amuategi du Front Nord.

Civil War: trauma, duel and memory in autobiographical testimonies.
Juan Azcarate and Luis Ariznabarreta, militiamen of battalion Amuategi on the Northern Front.

LABURPENA. RESUMEN. RÉSUMÉ. ABSTRACT.

Artikulu honetan Gerra Zibileko gertaera tragikoak jakinarazteko familia-memoriaren transmisioak (posmemoria) duen garrantzia azpimarratzen dugu. Ipar Frontean borrokatu ziren Amuategi batailoko Juan Azcarate eta Luis Ariznabarreta milizianoen esperientzia gogorak aztertzen ditugu, historia pertsonalak funtsezkoak baitira historia kolektiboa osatzeko. 2020an Ariznabarreta familiaren ganbaran aurkitutako eskuizkribu eta dokumentu autobiografikoak erabiliz, Luis Ariznabarretak pairatutako trauma osteko estresa eta harek Francoren diktadurak ezarritako errepresio eta isiltasunetik babes-teko eraiki zituen babes psikologiko eta erresistentziak aztertzen ditugu. Horrez gain, artikulu honek gerrako biktimen oroimena berreskuratu nahi du.

Importancia de la transmisión de la memoria familiar (posmemoria), para mostrar los trágicos sucesos de la Guerra Civil. A partir de los testimonios autobiográficos encontrados en 2020 en el desván familiar, se presentan las consecuencias sufridas por Juan Azcarate y Luis Ariznabarreta, milicianos del batallón vasco republicano Amuategi que lucharon en el Frente Norte, el estrés-post-traumático sufrido por Luis y las defensas psicológicas y resistencias que organizó para protegerse de la represión y el silencio impuesto por la dictadura franquista. Ambas historias se presentan a modo de ejemplo del sufrimiento de las guerras, y la importancia de las historias personales para conformar la historia colectiva. Además este artículo pretende recuperar la memoria de las víctimas de la guerra.

Importance de la transmission de la mémoire familiale, pour montrer les tragiques événements de la Guerre Civile de 1936. À partir de témoignages autobiographiques retrouvés en 2020 dans le grenier familial, on présente les conséquences subies par Juan Azcarate et Luis Ariznabarreta, miliciens du bataillon républicain basque Amuategi sur le Front Nord, le stress-post-traumatique subi par Luis à la suite des décès qu'il a vécus, et les défenses psychologiques et la résistance qu'il a organisées pour se protéger de la répression et du silence imposés par la dictature franquiste. Les deux histoires sont présentées comme des exemples de la souffrance des guerres et de l'importance des histoires personnelles dans la formation de l'histoire collective. Cet article vise à retrouver la mémoire des victimes de la guerre.

Importance of transmission of family memory transmission (post-memory), to communicate what happened during the Spanish Civil War (1936). Based on the autobiographical testimonies found in 2020 in the family attic, we present the consequences suffered by Juan Azcarate and Luis Ariznabarreta, militiamen of the basque battalion Amuategi of the Northern Front, the stress-post-traumatic suffered by Luis and the psychological defences and resistance he organised to protect himself in times from the repression and silence imposed by the Franco dictatorship. Both stories are presented as examples of the suffering of wars, and the importance of personal stories, which are fundamental in shaping collective history. In addition, this article seeks to restore the memory of the victims of war.

HITZ GAKOAK. PALABRAS CLAVES. MOTS-CLÉS. KEYWORDS.

1936ko Gerra Zibila / Lekukotza autobiografikoak / Milizianoak / Trauma osteko estresa / Posmemoria.
Guerra Civil de 1936 / Testimonios autobiográficos / Milicianos / Estrés posttraumático / Posmemoria.
Guerre civile 1936 / Témoignages autobiographiques / Miliciens / Stress post-traumatique / Post-mémoire.
Spanish Civil War / Autobiographical testimonies / Militiamen / Post traumatic stress syndrome / Postmemory.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
1. Soraluzetik abiatuta Gerra Zibileko bi lagun bidea.....	9
2. Gipuzkoa eta Bizkaiko frontean elkarrekin.....	13
3. Santanderreko frontetik Asturiaseko batailetara.....	19
4. Ipar Fronteko bukaeran preso erori Trubian.....	26
5. Urte bete soldadu-gatibu Gaintzurizketan eta Hondarribian.....	31
6. Euskadi eta Estatuko biktimen datuak. Trauma osteko estresa.....	35
7. Etxera bueltan bost urte frontean eta preso eman ondoren.....	38
8 Erresistentziak, babes psikologikoak eta erreparazio soziala.....	41
Gure hildakoeri bertso-kanta.....	42
9. Hainbat gogoeta ondorio gisa.....	43
Esker onak	48
10. Iturriak	
10.1 Ahozko lekukotzak eta eskuizkribuak.....	49
10.2 Bibliografia.....	50
10.3 Artxibategiak eta webgrafia.....	53
10.4 “Txinatar bat Euskal Armada” gaiari buruzko argitalpenak...	55

HITZAURREA

Covid-19ko pandemian, 2020eko udaberrian, konfinamendu garai bete-betean gurasoen ganbara garbitzen geundela, 1936ko Gerra Zibilari buruzko aitaren eskuizkribuak aurkitu genituen. Gure aita, Luis Ariznabarreta Zubiaurre “Espilla” (1915-2003), Gipuzkoako Soraluze herria abiapuntu, Euskal Armadaren Amuategi batailoiko miliziano ibili zen hamabost hilabete iraun zuen Ipar Frontean. Seme-alabok aurkitutako eskuizkribu horien artean bazeuden: frontean eta preso egon zeneko kronologiak, dokumentu militarrek, gerrako gertaerak, hildako soraluzetarren zerrendak, eskuadrakideen izenak, bertsoak, kantak... Bitxikeria batzuk ere bazeuden eskuizkribu multzoan, “Un chino en el Ejército Vasco” eta “Rusos y chinos en el Ejército Vasco” testuak, alegia. Material hori, ni neu, Luisen alabetako bat, aztertzen eta lantzen hasi nintzen.¹ Ikerketaren emaitzak 2021ean argitaratu zen guztia-rekin izan genituen: Hwei Ru-Nik Txinan eta Amerikako Estatu Batuetan argitaratutako artikulua; Euskal Herriko zenbait egunkari, aldizkari, irrati eta webgunetako erreportaiak; eta baita Madrilen aurkeztu zen Brigadista txinatarrei buruzko erakusketan ere.²

Ikerketa aurrera neramanean 2022ko martxoan, Soraluzeako familiaren partetik dei bat jaso nuen: Aranzadi Zientzia Elkarteak Soraluzeako oroimen historikoari buruzko webgunea ireki nahi zuen, eskubide urraketak jasan zituzten herritarren datuekin.³ Pertsona bakoitzaren fitxa osatzeko lortu ahal nituen datu gehien bidali behar nizkien. Senideen historia guztiak Gerra Zibila eta Gerraostearekin erlazionatutakoak ziren. Familiako ume, andre eta gizonen historiak, dokumentuak eta argazkiak Aranzadiri bidaltzean, zalantza bat sortu zitzaidan: ea gure aitaren izkribuetan agertzen zen Juanito Azcarate Treviño lagunari buruzko datuak galduta geratuko ote ziren. Informazio horiek bere senideei eskeini nahi nizkien, eurak zituzten datuekin Juanitoren historia osatzeko asmoz. Soraluzen galdetutako herritarrek ez zekiten ezer familia honi buruz. Oroitzapen gogor horiek ahazturan gera ez zitezen, Juan eta Luisen gerrako historiei buruzko artikulua hau idaztea erabaki nuen.

Ikerlan honen helburua bi milizianoen historiak adibide moduan aurkeztea izan da, gerra krudel hartan eta gerra ondorengo gupidagabeko errepresio urteetan, hainbatek bizi eta jasan zuten sufrimendua ezagutarazteko. Francisco Ferrandiz antropologoak dioenez gaur egun beharrezkoa da memoria lantzea, ez garaipena edo porrota irudikatzen duen zerbait bezala, gerraren sufrimendua kontuan hartuta baizik.⁴

¹ Begoña Ariznabarreta Orbea (Soraluzen 1953). *Gizarte eta Kultura Antropologian Lizentziaduna*, 2003, EHU Donostia./ O.H.O-erako Irakaslegoan Diplomatu, *Euskal Filologia adarrean*, 1994, EHU Gasteizen.

² 2020aren amaieran *Los brigadistas chinos en la Guerra Civil* liburua egileekin (Hwei eta Len Tsou) harremanetan jarri nintzen. Elkarren arteko lanaren ondorioz, 2021tik aurrera gaiari buruzko zenbait argitalpen plazaratu ziren. Argitalpen horiek guztiak artikulua honen bibliografiaren azken atalean: “Txinatar bat Euskal Armadan”.

³ <https://www.aranzadi.eus/eu/memoria-historikoa-eta-gertukoa-berreskuratzen>. (Sarrera: 2022/11/17an).

⁴ Aitzpea Leizaola, "La antropología a pie de fosa. Dilogio con Francisco Etxeberria y Francisco Ferrandiz sobre la memoria de la guerra civil" in *Ankulegi: Gizarte Antropologia aldizkaria*, 10 zb. (33-46 or.), Donostia, 2006, 42 or.

Gure aitak bere lekukotza autobiografikoetan, gerraren ondorioz hildakoen etengabeko aipamenetan, bere trauma erakusten digu. Gaur egun “trauma osteko estresa” izena emango genioke bere egoera psikologiko horri. Susan Sontang filosofoak *Ante el dolor de los otros* liburuan dioenez, gerrarik jasan ez dugunok ezin dugu imaginatu ere egin, zein orbain psikologikoa uzten dien gerra fronteetatik bizirik atera diren soldaduei, eurak zoriaz edo txiripaz hil ez direla sentitzeak, bere ondoan heriotzak milaka gudakide eraman dituenen.⁵ Hori dela eta, artikulu hau, gure aitak nahiko lukeen moduan, gerra odoltsu haren ondorioz hildako guztien oroimenez idatzi da, eta batez ere, betiko ahazturan geratuko diren hildako soldadu eta herritar zibil ezezagunen memoriaz.

Giza zientzietan maiz hizpide izan da ikertzaile batek ezin duela ikerketa-objektua objektibotasunez aztertu, egilearen eta objektuaren artean hurbiltasun handia dagoenean, gure kasuan bezala, aitaren eta alabaren artean. Agerian da hurbileko ikerlanetan beharrezkoa den distantzia analitikoa mantentzea, zailtasun handienetakoa dela. Oztopo hori gainditzeko, hurbileko ikerketa-objektua kanpoko begirada zientifiko batetik aztertzea da gakoa, ezezaguna balitz bezala, nahiz eta egilea barruan egon. Hurbiltasunak abantaila batzuk ere baditu, adibidez, ikerketa-objektua ezagutzaren aberastasuna: bi-zipenak, emozioak, ñabardurak, interesa, iturrien gertutasuna... Gainera hurbilekoa ikertzen lortzen diren ezagupenak, askotan, giza zientzietan ohizkoak diren interpretazioetatik ez dira lortzen. Era berean hurbilekoa ezezaguna balitz bezala aztertzeak, geure gizartearen errealitate kultura eta soziala hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen digu; bide batez, gizaki guztion errealitate sozialean eta kulturean sakontzen da. Agerian dago Barandiarani Alemaniako irakasle hark esan ziona, eta gaur egun ere balio berbera daukana: “Sakon ezazu zure herrian eta unibertsalietara iritsiko zara. Guztion iturria bat baita”. Halaber, hurbileko gaietan sakonduz lortzen den ezagupenik handiena, Rabinow antropologoak esan zuen modura, norberaren ezagupena eta ulermena hobetzea da.⁶

Objektibotasuna ez da errealitate aldaezina; are gehiago, egilearen asmoen bidea baino ez da. Hori dela eta, giza zientzien ikerlan batean, eraikuntza sozial narratibo gisa, beharrezkoa da egilearen subjektibotasuna artikularen lehen orrialdeetan erakustea: Nor da egilea? Nondik abiatu da? Zein da bere formazioa? Zein da ikerketaren aurrean duen jarrera? Zeintzuk dira bere galderak eta helburuak?... Datu horiek aurkeztuz funtsezkoa den zerbait bermatuko dugu: ikerlan hori zintzotasunez aurkeztu dela, gutxienez, irakurlea manipulatzeko aukerarik ez izateko. Hitzaurre hau asmo hori betetzera zuzendu da.

Metodologia aldetik Gizarte Antropologian ohizkoak diren teknikak erabili ditut, artikulua behar zuen ikerketa burutzeko: bizitza-istorioa eta autoetnografia teknika etnografikoak, elkarrizketak, lekuko zuzenengandik datuak jasotzeko landa-lana, zerbait artxibo eta webgunetan agertzen diren ahozko zein idatzizko lekukotza autobiografikoak, gaia eta ikerketarekin lotutako bibliografia, Ipar

⁵ Susan Sontang: *Ante el dolor de los demás*, Debolsillo, Barcelona, 2022 [1.a 2003an], 106 or.

⁶ Paul Rabinow: 1992, *Reflexiones sobre un trabajo de campo en Marruecos*, Júcar, Madrid, 1990, 114 or.

Fronteko gertaera historiko ofizialekin erkatu aitaren gertaerak... Eta batez ere, artikulua ardatz hartuta, gure aitaren lekukotza eta esperientzia Gerra Zibilean, bere eskuizkribu, dokumentu, audio, argazki, kanta eta bertsoetan isladatuta utzi ziguna.

Gure aitak bazkalondo askotan gerraren oroitzapenak izaten zituen buruan.⁷ Guri minik ez emateko anekdotak besterik ez zizkigun kontatzen. Anekdotak horien lerro artean gerraren gordintasuna agertzen zitzaigun, berarentzat oso mingarriak zirela sentituz. Bere ixiltasun adierazkorrak harrapatu gintuen ia konturatu gabe. Berak ahoz kontatu gabeko gertaera traumatikoak guri modu emozionalean transmititu zizkigun.⁸ Gerraren biktima guztiek beldur, emozio eta sentimendu berberak izan zituzten, bi ixiltasun mota sufrituz: euren barnetik zetorrenaz gain, kanpotik gizartean inposatutakoa ere. Euren buruei bizi izandako errealitatea komunikatzeko oztopo handia ezartzen zieten, batez ere diktadura frankistaren ohiko errepresioaren beldur zirelako. Diktadura batek eragiten duen kalterik handienetakoa oroimena ukatzea eta adierazpen guztiak isilaraztea baita.

Isiltasun garai horien ondoren, aitaren eskuizkribuen aurkikuntza akuilu zorrotza izan zen barnean ezkutuan nuen premia berpizteko. Zer bizi izan zuen horrelako min handia izateko? Zer gertatu zitzaion? Heriotzetan parte hartu zuen? Kontatzen zituen istorioak benetakoak ziren? Errealitate historikoarekin lotuta zeuden? Neure buruari aurpegiatzen nion aitari gehiago galdetu ez izana. Pena handia nuen galdutakoagatik. Aitaren gerrako gertaeretan gero eta sakonago hasi nintzen ikertzen, baina gero eta behar handiago nuen bere historia hobeto ezagutzeko. Baina neure buruari galdetzen nion ea beranduegi ez ote zen.

Antropologian datuak jasotzen beranduegi ibiltzearen kezka, ohikoa izan da. Lévi-Strauss antropologoak *Tristes Trópicos* liburuan zenbait gogoeta egiten ditu gai horri buruz. Horrela dio: “Hemendik ehundaka urtera, leku honetan bertan, beste bidaiari batek, ni bezain etsitua, negar egingo du; nik ikusi ahal izango nuena eta ikusi ez nuena, orain desagertua izanagatik. Ezintasun bikoitz baten biktima, pertzibitzen dudak guztiak min ematen dit, eta etengabe gaitzesten diot neure buruari behar adina begiratzen ez jakiteagatik”.⁹

Gure aitaren kasuan zortea lagun izan genuen. 2020ko azaroan Sancho el Sabio Fundazioan gerrako ahozko lekukotzak ikertzean, Eusko Jaurlaritzako Gerra Zibileko gidan gure aitari eginiko grabazio bati buruzko aipamena aurkitu nuen ahozko atalean.¹⁰ Carlos Blasco Olaetxea (C.B.O) ahozko

⁷ Gure amak askotan transmititu zigun: “Gerra okerrera da. Ez nuke, guk bizi izan genuena, zuek berriro bizitzea nahi”. Gure ama, Rosario Orbea Gallastegi, Frantziara erbesteratutako “gerrako umea” izan zen. Anai-arreba guztiak eta euren ama erbesteratuak izan ziren 1937an; 4 mutil Belgikara eta 3 ahizpa eta ama Frantziara.

⁸ Aitzpea Leizaola: “Memoria historikoaren berreskuperaren eta gertakari traumatikoen transmisioaren erronkak. Gerra Zibileko lekukotza-bilketarako ohar metodologikoak”, in *1936ko Gerra Euskal Herria. Historia eta memoria*, (349-378 or.) UEU, Bilbo, 2009, 359 or.

⁹ Lévi Strauss: *Tristes Trópicos*, Círculos de lectores, Paídos, Barcelona, 1994 [1.a 1955ean], 61 or. Leizaolarenak izan ezik artikulua honetan agertzen diren egileen aipuak eta ahozko testigantzak, neuk euskaratuak izan dira.

¹⁰ VV.AA. *Gerra Zibilak Euskadin izan zuen bilakaerari buruzko iturri dokumentalen eta bibliografikoen gida 1936-1939*, Gobierno Vasco, Euzko Ikaskuntza, Gasteiz, 2009, 395 or.

funtsak grabatutako 90 minutuko elkarrizketa hori, guretzat ezezaguna zena, ezusteko pozgarria izan zen familiarentzat, eta ezinbestekoa izan da ikerketa hau aurrera eramateko.¹¹ Ustekabeko elkarrizketa hori egin ziotenean, 80. hamarkadaren lehen erdian, aita gu bezain harrituta geratu zen.¹² Ezustean, berrogei urtetan diktadura errepresibo eta mendekatzaille batek inposatutako isiltasunaren ondoren, gerrako esperientzia indibidual eta kolektibo traumatiko hartaz interesa erakutsi zion entitate bat bere etxera joan zitzaion elkarrizketa egitera.

C.B.O. ahozko funtsak urgentziazko bilketa egin zuen hamarkada horretan, gerran parte hartu zuten 105 gudari eta miliziano elkarrizketatuz eta grabatuz. Gerran gertatu zena aktoreen aldetik entzutea sekulako altxorra da, nahiz eta bilketan akatsa metodologiko asko izan. Aitak idatzizko lekukotzetan ere bere kexa azaldu zuen, aurretik prestatu gabeko elkarrizketa izan zela eta hori memoria aktibatze beharrezkoa zela.¹³ Hala ere, gerra bukatu eta lau hamarkada beranduago, aitak bere oroimenean dena ondo gordeta zuen. Nola gogora dezake pertsona batek hainbeste urte pasa ondoren orduan gertatutakoa xehetasun ñimiñoekin? Arrazoia da gure memorian askoz hobeto gordetzen ditugula emozioez eta sentimentuez finkatzen ditugun oroitzapenak.¹⁴ Eta zoritxarrez, Gerra Zibila oso luzea eta krudela izan zen oroitzapen saminak finkatzeko, gerra sufritu zutenen oroimen emozionalean.

Lekukotza autobiografikoak Gerra Zibileko ikerketetan, askotan, bigarren mailako iturri gisa tratatuak izan dira hainbat ikerketetan, balore handiagoa eman zaielako dokumentuei protagonisten lekukotzei baino. Testigantza horiek oso garrantzitsuak dira, lehen lerroan egon ziren protagonisten gertaeretara, bizipenen eta emozioetara hurbiltzen gaituztelako, hurbilpen horrekin euren prozesu traumatikoak ulertzeko eta ikertzeko aukera emanaz. Gainera, haien ahotsak askotan historia ofizialetatik baztertuta egon diren gizarte sektoretara ere hurbiltzen gaituzte. Gaur egun ahozko testigantzak erregistratu gabeko memoria eta esperientziak aztertze duten gaitasunengatik, kategoria garrantzitsu bihurtu dira giza-zientzietan.

Ahozko testigantzak jasotzen eta aztertzen, badugu Ronald Fraser historialariaren bilketa, 70. hamarkadan aintzindaria eta eredugarria izan zena. Hispanista honek bere liburuaren izenburu sinbolikoarekin, *Recuérdalo tú, recuérdalo a otros*, memoriaren transmisioaren garrantzia azpimarkatzen du.

¹¹ Elkarrizketaren grabazioa 1982-84 urte inguruan egin zioten Gasteizen, gazteleraz. “Iragri Artxibo”-tik “Euskadiko Artxibo Historiko”-ra eraman zuten eta “Carlos Blasco Olaetxea” (C. B.O.) ahozko fondoan aurki daitezke, A eta B aldeak eta akatsak dituen transkripzio laburtua. Erreferentzia: “Luis Ariznabarreta 021.022 Co1/10”.// 2021ean Luisen ondorengo batzuen artean audioari transkripzio literala egin genion, gure ustez zeuden akatsak zuzenduz. Hemendik aurrera oin oharretan, Luis Ariznabarreta Zubiaurren audioak eta eskuizkribuak LAZ siglekin agertuko dira: A audioaren aipamenak LAZ: AAT, eta B audioakoak LAZ: BAT. / Argitaratuta dauden zenbait irizpide erabili ditugu. Gotzon Aurrekoetxea: “Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak” in *Uztaro*, 23. zk, UEU, Bilbo, 1997, 87- 94 or.

¹² LAZ: AAT, 12 or. Aitaren elkarrizketako zati guztien itzulpenak Soroluzeko eukarara pasatzen hurbildu naiz, *h*-rik gabe berak erabiliko lukeen moduan, eta “kakotxen artean”. Aditzetarako *Bergarako Eusker*a liburu erabili dugu (1988) eta Etzoz Larrañaga Orbea lehengusuaren laguntza.

¹³ LAZ: I. K., 21-22 or. Luisek lau koaderno txiki idatzi zituen. Hemendik aurrera koadernoentzako iturria: LAZ (Luis Ariznabarreta Zubiaurre) koadernoaren zenbakia, K sigla, eta orrialdea jarriko ditugu.

¹⁴ Aitor Azurki: *Maizales bajo la lluvia. Testimonios de los últimos gudarís y milicianos de la Guerra civil en Euskadi*, Alberdania, 2011, 10 or. Paco Etxebarria Gabilondoren hitzak liburuaren hitzaurrean.

Egileak 1973ko ekaina 1975ko maiatzaren artean Espaniar estatu osoan, Gerra Zibileko aktoreen esperimentzia pertsonalak 300 elkarrizketa baino gehiagotan bildu zituen.¹⁵ Ahozko testigantzaren bitartez, gatazkaren errealitatera hurbildu nahi gintuen aktoreen subjektibitateari garrantzia emanez. Bere libururako 235 elkarrizketa aukeratu zituen, elkarrizketatu gehienak langile klasekoak izanik bere izen-abizenekin. Fraserrentzat azken datu hori Gerra Zibilaren gauzarik azpimarragarrienetakoa izan zen, langileak hiru urtez borrokatzeko eta hiltzeko prest egon zirela.¹⁶

Gaur egun, 2023an, Franco hil zenetik 48 urte igaro ondoren, maiz entzuten dugu gai hauek ahaztu egin behar direla, ez direla ukitu behar bakean eta batasunean oinarritutako etorkizuna lortzeko. Soren Kierkegaard filosofoak nonbait idatzi zuen bizitza atzera begira bakarrik uler daitekeela baina aurrera begira bizi behar dela. Iraganari begira, zer garen eta gaur egungo gizartearen nondik-norakoak ulertzeko eta etorkizunari begira, aurrera jarraitzeko. Honen harira, Manfreud Osten historialariak kultura memoriaren galerari buruz dio, ezin dela etorkizuna lortu gertaera traumatikoak jasan dituztenen iraganaren kontura, guztiontzako etorkizun hobearen aitzakian, are gutxiago ez zaienean publikoki gogoratzen utzi.¹⁷ Egile honentzat memoriaren betebeharra gaur egun indarrean dagoen zerbait garrantzitsua da, baina bere ustetan garrantzitsuena ez da euren iragana gogoratzen dutenen erabateko ziurtasuna, baizik eta iraganari buruz egiten duten balorazioa eta gaur egun duen esanahia. Interpretazio hori une honetan, ondorengoei dagokigu.¹⁸

Paco Etxebarria Aranzadiko antropologoak aipatu duen moduan, isiltasun behartuaren ondoren, historia pertsonala eremu publikora pasatzen da, orain nahitaezkoa da historia hori ezagutaraztea¹⁹ Historia hauek argitara ematea ezinbestekoa da Gerra Zibilaren ondorioz gertatukoaren larritasuna ahanzturatik berreskuratzeko, historia pertsonalak garrantzitsuak baitira historia kolektiboa osatzeko; eta baita beharrezkoak ere, gaur egungo belaunaldiok kontzientzia har dezagun hain trauma lazgarriak sortzen dituen gerrarik ez errepikatzeko.

“Sobrevivir y contar la historia para que la locura no acompañe al silencio”²⁰

La voz Dormida, Dulce Chacón

¹⁵ Ronald Fraser: *Recuérdalo tú, y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*, Planeta, Crítica, 2009 [1.a 1979], XVIII or. Fraserrek bere zinta guztiak Bartzelonako Arxiu Historic-an utzi zituen 1997an. / Mikel Peciña: “Recuérdalo tú y recuérdalo a otros de Ronald Fraser, o la memoria popular de la Guerra Civil”, in *Muga*, 4 zk., Iparragirre. Bilbo, 1980, 86-89 or.

¹⁶ Fraser: *Recuérdalo*, 15 or.


¹⁷ Manfreud Osten: *La memoria robada: los sistemas digitales y la destrucción de la cultura del recuerdo: breve historia del olvido*, Siruela, Madrid, 2008, 3-34 or.

¹⁸ Osten: *Memoria*, 10 or.

¹⁹ Azurki: *Maizales*, 11 or. Pako Etxebarriaren hitzak liburu horren hitzaurrean.

²⁰ “Bizirik irautea eta istorioa kontatzea, eromena gerra ez dadin isiltasunari itsatsita”, Dulce Chacón poeta.

1. SORALUZETIK ABIATUTA BI LAGUNEN GERRA ZIBILEKO BIDEA



1.1 Soraluze 1935an. Indalecio Ojanguren Fondoa Eibarko Udal Artxiboan.

1936ko uztailearen 17-18an Afrikan militarrek altxatu zirenean Soraluzeko herritarrek ez zuten espero zetorkien gerra garaia. Altxamenduaren berria iritsi zitzaizenean, fabriketako lanpostuak utzi eta Plaza Berriko Aurrezki Kutxaren aurrean bildu ziren. Gazteen artean Luis Ariznabarreta Zubiaurre eta Juan Azcarate Treviño soraluzetarrak zeuden. Juanito eta Luis adin bereko lagunak ziren, Luis 1915eko urriaren 29an jaioa, eta Juanito 1916ko ekainaren 16an.²¹ Hogei urte zituzten boluntario aurkeztu zirenean herrian sortu ziren errepublikar milizietan parte hartzeko. Soraluzeko gazte hauek ideologia politiko askotarikoak ziren. Adibidez, Luis *Unión General de Trabajadores* (UGT) eta *Juventudes Socialistas Unificadas* (JSU) taldeetakoa zen.

Euskal miliziak, milizianoak eta gudariak, izendatzeko erabili zen izen orokorra *Ejército Vasco* izan zen, eta abertzaleen batailoiek osatzen zuten multzoari, gudariak, “Euzko gudarostea”. Gobernu zentralak *I Cuerpo de la República del Norte* izena eman zion.²² 1937ko apirilaren 26ko aginduan agertzen diren batailoak 80 dira, guztira 45.000-75.000 gudari eta milizianoekin.²³ Iturrien arabera kopuruak aldakorrak dira, 80.000 soldadu izatera ere iritsi zirela aipatzen da. Batailoiak osatu zirenean, Juanito eta Luis “Amuategi” batailoian sartu ziren biak, Luisen anaia Lucasekin batera. Batailoi hori Euskal Armadaren 6. Brigadako 35a izan zen.²⁴ Hirurek *Compañía Placentina* izenez ezaguna zen 4.

²¹ Juan eta Luisen jaiotze ziurtagirietan.

²² Francisco Manuel Vargas Alonso: “Milicias en Euzkadi. Los problemas de la militarización” in *Desperta Ferro*, 9 zk., Madrid, 2021 [1.a 2015], 14-17 or., 14 or.

²³ Vargas: *Milicias*, 15 or. Egile honek aurkezten duen euskal milizietan zeuden soldadu kopuruen kalkulua egina, 1937ko urtariletik maiatzera bitartean, 50.000etik hurbil ziren.

²⁴ Iñaki Egaña Zuzendaritza. VV.AA: *Guerra Civil en Euskal Herria*, Aralar, Andoain, 2000. Euskal Armadaren zerrendetan Juan Azkarate agertzen da VII. liburukian, 628 or.; eta VIII.ean 63 or., Amuategiko miliziano funtzioan. Luis eta Lucas 54 eta 468 or.// Amuategi batailoiko, 1936ko azaroaren 15eko, nominetan. Euskadiko Artxibo Historikoan (Salamankako Artxibo Militarra). / Soraluze: *Isiltaduna*, 68 or. Lucas Ariznabarreta agertzen da.

konpañiaren 2. sekzioan parte hartu zuten.²⁵

Juanito Azcarateri buruz, gerrako armadetako zerrendak diotenaz aparte oso gutxi dakigu. Iritsi zaizkigun zuzeneko testigantza bakarrak Luisek utzitako eskuizkribuak dira. Juanen aita Eulogio Azcarate Bustinduy zen eta ama Victoriana Treviño Azcarate, biak Soraluzeen jaiotakoak, 1889an.²⁶ Aita armagina zen eta Juanitok ere horretan lan egin zuen, plaentziatar gehienek bezala. Juanitok, Alberto anaia bakarra izan zuen 1926an jaioa, bera baino 10 urte gazteagoa.

Luisen aita Josemari Ariznabarreta Agirrebeña zen, “Espilla” baserriko semea, eta ama Anastasia Zubiaurre Odriozola, “Errotatxo” tabernako alaba. Biak Soraluzeen jaiotakoak, bata 1890ean eta bestea 1893an. Aita armagina zen Soraluzeko Kanoi-fabrikan, eta ama garai hartan ohikoa zen moduan, hoteleko zerbitzaria gaztetan, eta ezkondu ondoren etxeko andrea. Luisek hiru anaia-arreba zituen: Lucas (1917), Jacinto (1921) eta Maritxu (1923). Espilla familia errepublikar sutsuak ziren. Luisen aitaren izena Soraluzeko Gerra Komisaldegian agertzen da gerraren lehenengo astetan.²⁷ Gerra hasi eta lau astetara hil zen biriketako gaixotasun batengatik.



1.2, 1.3. Luis Ariznabarreta bere ikaskiderekin Soraluzeen 1922 eta 1924an. Juan Azcarate horien artean egon daiteke. LAZF bilduma. Horietatik zenbat hilko ziren Gerran Zibilean?

Luisek haurtzaro zoriontsua izan zuen herrian eta baserrian.²⁸ Musikarako zaletasun handia zuen eta solfeo, flauta eta kantu formazioa jaso zuen. Elizako umeen koruko solista izan zen, eta gerra iritsi arte flauta jo zuen Liberalen bandan. Zortzi urtetan Maristetan ikasi ondoren, 14 urte zituela lanean hasi zen tornero-ajustadore. Ikasteko grina zeukanez gau-eskoletan ikasketa teknikoak egin zituen. Luis oso igerilari ona zen. Deba ibaiko uretatik itotzear zeuden hiru mutiko atera zituen une diferentetan: “Igerixan bastante itxuran eitten nuan eta nik atera nittuan ibaittik iru pertsona, iru gazte.

²⁵ Jesús Gutierrez Arosa: *Gerra Zibila Eibar eta Elgetan*, Eibar eta Elgetako udalak, Eibar-Elgeta, 2007. Amuategiko zerrendetan miliziano moduan agertzen dira: Juan Azcarate 196 orrialdean, eta Luis eta Lucas Ariznabarreta 194an.

²⁶ EAH. DOKUKLIK online artxiboan. Erregistro sakramentalak. Signatura 2933/002-01. (Sarrera 2022ko abenduan)


²⁷ Egaña: *Gerra*, VIII tomoa, 468 or.

²⁸ “Espilla”, Luisen familiaren baserriaren izena, Soraluzeko Etzozia auzoan zegoen. Orain dela urte gutxi desagertua.

Bat, nire anaia zan, beste bat Luis Prieto izena zebana, eta beste bat Agustin Arizaga”.²⁹ Luisek hamaika-hamabi urte zituen Arizaga salbatu zuenean (1926-27an). Espillak bere zahartzaroan esaten zuen: “Ni beti pozik eon izan naiz orregaittik, zerbaitterako balio izan nebala, beintzat batzuei bizia salbatzeko”.³⁰

Militar matxinatuen altxamendua ondoren, uztailaren 27an, Errepublikar Defentsarako Gerra Kontseilua osatu zen.³¹ Berehala Soraluzeko industria guztiak Errepublikaren agindupean jarri zituen gerraren zerbitzuan. Abuztuaren bukaeran eta irailean Gerra Kontseiluak agindua eman zuen, armagintza-industriako makinaria, ofizialak eta langileak Soraluzetik Sestaoko La Navalera bidaltzeko. Herrian zegoen armagintzako material guztia, sartzear ziren Francoren tropek errepublikarren kontra erabil ez zezaten. Euren artean Juan Azcarateren familia atera zen herritik. Bere aita armagina zenez, gerran mobilizatutako industrietan zebilen, beste hainbat errepublikar armaginek egin behar izan zuten moduan. Jacinto, Luisen 15 urteko anaia, mobilizatutako gerra industrietan lanean ere ibili zen; gutxienez, lehenengo bi hilabete horietan.³²

JUAN AZCARATE



1.4 Juanito Azcarateren aurpegia zein zen ez dakigu.

1.5 Luis Ariznabarreta, Soraluzen 1935ean. (LAZF bilduma).

²⁹ Arizagaren aitak semea salbatzeagatik pezeta bat eman zion Luisi. Eskolan diskurtsoa eta medailatxoak eskeini zizkioten eskolako guztien aurrean. (1992ko audioan. LAZ familiaren bilduman)

³⁰ Luisi, 1992ko gabonetan, Begoña alabak grabatutako audioan.

³¹ Kontseilua PSOE, PC, IR, EAJ, CNT, ANV, STV, UCT eta UR partiduek osatzen zuten. Soraluze: *Ixiltasuna*, 59 or.

³² Luisek, Jacinto anaiaren fitxa gordeta zuen bere dokumentuen artean. Fitxa horrek badu “Euzkadi’ko Jaurlaritza-Guda” menbretea. 360 pesetako gratifikazioa eman zioten, “Mobilizatutako industrietan” emandako zerbitzuengatik. Soraluzeko Kañoi fabrikari - Sestao La Naval.

1936ko irailaren 20an, Francoren tropak Sorailuzera hurbiltzen ari zirenean, Luis “Espilla” izan zen, danbor baten soinuaren laguntzaz, herriko punta batetik bestera bandoa eman zuen herritarra. Bandoan aldarrikatzen zuen “Francoren tropak errixan sartziar ziala, ta gabeko zortzietan estaziñuan doañeko trena zaiñ izango zebela errittik alde eitteko, ta amabost eguneko gauza izango zala etxera bueltatzeko”.³³ Errepublikar herritar askok, zahar zein andre eta ume, tren hori hartu zuten. Anastasia, alargundu berri, Jacinto eta Maritxu, seme-alaba gazteenekin Bilbora alde egin zuen tren horretan. Hasieran Bilbo, eta ondoren Frantzia eta Katalunia izan ziren euren erbesteko babeslekuak. Frantzian, Dijon hirian egon ziren eta handik 60 kilometrotara dagoen Montigni Sur Vigneanne herrian, lanean eta apopilo. 1938ko martxoaren 28an Katalunian zeuden hirurak Penedés-eko Arbós-en.³⁴ Guztira hiru urte eman zituzten erbestean, 1939an gerra bukatu zen arte. Juanen familia Bilbo aldera Armagintza industriekin batera eraman zuten eta bertan bizi izan ziren hurrengo hilabeteetan, 1937ko ekainean Bilbo erori zen arte. Une hartan armagintza industria, Sestaotik Asturiasera eraman behar izan zuten, gerra-frontea zihoan bidea jarraituz. Beste armagin plaentziatarrak bezalaxe, Eulogio Azcarate Bustinduy hara zuzendu zuten, Alberto seme gazteena Bilbotik barkuz erbestera bidali ondoren.³⁵ Parisko Artxiboko fitxetan Alberto Azcarate Belgikara bidalitako umeen zerrendetan agertzen da.³⁶ 1936ko azaroan Sorailuzeko Udalak egin zuen kontaktetan, ia biztanleria erdia herritik alde eginda zegoen. 1935ko erroldan zeuden 3.061 biztanletatik 1.120 falta ziren.³⁷

³³ Audioa: Rosita Orbea Gallastegiren azalpenak, Luisen emaztea, 1992an Begoña alabak grabatua.

³⁴ Anastasia Zubiaurre eta Jacinto Ariznabarretaren izenak agertzen dira Euzko Gobernuaren erbesteratuen fitxan, 1938-03-28. Intxorta 1937 taldeak bidalitako fitxa, 2022ko azaroan bidalia.

³⁵ Alberto Azcarate Treviño Bilbotik erbesteratzeko zeuden umeen zerrendetan agertzen da 1937ko maiatzaren 2eko *Euzkadi Roja* (190 zk.) aldizkarian. Pares atarian. CDMH. (Sarrera: 2022ko irailean)

³⁶ Intxorta 1937 taldeko Juan Ramon Garai ikertzaileak bidalitako informazioa 2022ko urrian.

³⁷ Gutierrez: *Guerra*, 81or. eta 18 or. 1935eko erroldako datuak.

2. GIPUZKOA ETA BIZKAIKO FRONTEAN ELKARREKIN

Juan, Luis eta Lucas, Gipuzkoako frontean ezinbestean geratu behar izan ziren. Gerra hasi zutenen zentzugabekeria ulertu ez arren, herritar zibil xume-xumeak zirenak eta inoiz biolentziarik erabili ez zutenak behartuta egon ziren gerrara joaten, Errepublikaren defentsan, matxinatuek erasotu eta zapaldu zituzten askatasuna, justizia eta demokrazia defendatzeko.³⁸ Eta hori egin zuten inolako prestakuntza militarrik eta baliabiderik gabe, euren buruak babesteko. Luis Espillak milizianoen egoera latza isladatzen du bere audioan: “Danok giñan zibillak: bata igeltserua, bestia tornerua, ta bestia eskribientia. Ta instrukziño militarrik ezerbez.³⁹ (...) Kontua da guk ez giñuala, ez armarik, ezerbez. (...) Baña eurak fusillak, ametralladoriak ta danatatik zeken, ta gu eisa eskopetiekin besterik ez. Beraz, alde aundixa zeuan. Eurak 100 metrotara jartzen zian ta errez emoten zozkuen ta guriak ez zian iñora eltzen”.⁴⁰ (...) “Nik uste dot gerran pasatako denbora guzian emon genduala armak ta abioak noiz elduko zaiñ: ‘Uste dot abioiak bixar elduko diala, datorren astian seguru.’ Ta orrela beti zaiñ”.⁴¹ Aurrerago fusil txekiar batzuk iritsi zitzaizkien.⁴² Miliziano eta gudari gehienak langile xumeak izanda, oso sinbolikoa izan zen frontean uniforme gisa erabili zituzten laneko buzo urdinak.

The image shows two pages of historical military rosters. The left page is titled 'Batallón 15' and lists names such as Alejandro Ariznabarreta, Santiago Ariznabarreta, and others. The right page is also titled 'Batallón 15' and lists names like Pedro Ariznabarreta, Lucas Ariznabarreta, and others. Both rosters include columns for name, rank, and other military details.

2.1, 2.2 1937ko otsaileko nominak: Juan Azcarate, 293 or. L.Ariznabarreta 194 or. Euskadiko Artxibo Historikoa, Defentsa fondoan. Matxinatuen tropek inkautatutako materiala. Amuategui (35 zk, JSV) batailoiko nominak (1936-11-01/1937-07-00) /39 KUTXA EXPTE 1.

³⁸ Francisco Manuel Vargas Alonso: “Milicias en Euskadi. Los problemas de la militarización”, in *Historia Contemporánea* 9 zk., Leioa, EHU, Bilbo, 2015.

³⁹ LAZ: AAT, 7 or.

⁴⁰ LAZ: AAT, 3, 5, 6 or.

⁴¹ LAZ: AAT, 6 or. eta 12 or.

⁴² LAZ: AAT, 7-8 or.

Nafarroatik Mola generalaren tropak Gipuzkoa erasotu ondoren, Juanek eta Luisek, Gipuzkoa eta Bizkaiko fronteen defentsan parte hartu zuten: Donostian, Beasainen, Azkoitian, Gabirian, Zumarragan, San Adrianen... Karakate, Arrate, Kalamua, Basalgo, Malzaga, Irure eta Soraluzeko fronteetako borrokan, eta baita herriko deskubiartan ere: “Erasoak egunez izaten zian, gabaz gu aurrera giñuazelako. Eurak eguraldi ona ez bazan, eziñ zozkuen aurre egiñ, defentsarako izpiritu andixa zeualako”.⁴³ Euren artean beti baikortasun handia zegoela aipatzen du Luisek, aurrera egiteko gogoia: “Beti baikor. Gogo ori gazteriaren ezaugarria da, baña nik uste dot gure benetako indarrak ez giñuzela biar bezela neurtu, ez zakagulako zerekin defendatu. Orixe da egi osua! (...) Gerra amaittu zanian be, preso gendela, gerra ez genduala galdu uste giñuan, akordio batera ero eldu zala. Ez giñualako onartzen gerra galduta genduanik”.⁴⁴

Arrateko batailan gertatutakoari buruz Luisek dio, bai errepublikarrak, baita matxinatuak ere, han zirala erasorik hasi ezinik: “Arrateko eraso aretan, nik eztakitx... Batzuk, agian, beste era batera pentsauko dabe, baña nik gaba aretan bonbak ta tiroak bota nittuan jakin barik zeñeri botatzen notsan, an danok naastu giñalako. Ta orrela asko erori zian. Gure teniente bat il zan. Beste bat iltzat jo zeben, ta andik iru egunera arrastaka agertu zan”.⁴⁵ Alejandro Lluvia, Amuategi batailoiko milizianoa zanak, hilabetez-hilabete idatzitako eskuizkribuetan aipatzen du, 1936ko irailean Arrate hartzera joan zirenean, soldadu-konpañia bat zetorrela ikusi zutela. Ez zen ondo ikusten. Kalamua aldetik zetozen soldadu horiek “Gora Errepublika!” ohiukatu zuten. Amuategikoak lasai eta pozik sentitu ziren errepublikarrak zirelako. “Gora!” erantzun zutenean deskarga handia jaso zuten zetozenen aldetik. Erreke-teak ziren oihuaren engainua sortu zutenak eta errepublikar soldadu asko bertan hil ziren. Ondorioz tropen nahasmena sortu zen.⁴⁶ Luisek Eibar eta Soraluze herrien arteko enlaze-rola bete zuenean egunero Eibarko elizara jeisten zen gerra-partea eramatera, eta hilerritik pasatzean: “Arraten ildakoak ikusten nittuan. Ta egunero kamioiak gorpuz gainezka eltzen zian. Itxarkundia batalloiko kuadrillako amar ero amabi lagun be, an il zian”.⁴⁷

⁴³ LAZ: AAT, 16 or.

⁴⁴ LAZ: AAT, 12 or.

⁴⁵ LAZ: AAT, 11 or.

⁴⁶ Alejandro Lluviaren eskuizkribuen kopiak (2. or.) (1936ko irailean). Euskadiko Artxibo historikoan. C. Blanco Olae-txearen funtsa. 06. kutxa. 07 espediente. (1982 inguruan).

⁴⁷ LAZ: AAT, 11 or. / LAZ: AAT, 8 or.



2.3 Eibarko bonbardaketa 1937eko apirilaren 25ean (Indalecio Ojanguren Fondoa Eibarko Udal Artxiboa)

2.4 Gernikako bonbardaketa 1937 apirilaren 26an. [https://es.wikipedia.org/wiki/File:Bundesarchiv_Bild_183-H25224, Guernica, Ruinen.jpg](https://es.wikipedia.org/wiki/File:Bundesarchiv_Bild_183-H25224,_Guernica,_Ruinen.jpg)

Juanek eta Luisek beste fronteen erretiradan ere parte hartu zuten elkarrekin: Legutio, Gorbeia... Apirilaren 26an Gernikako bonbardaketa eta sutearen lekukoak izan ziren, 10-15 kilometrotara: “Arratsaldeko laurak inguru izango zian, bazkaldu ondoren. Abioiak zetozen. Oiuka asi zian: ‘Abioak gu arrapatzera datoz!’ Karretera albo banatara bota giñan. Bagiñuazen an 18.000 ero 20.000 gizon”. Gernikan Euzko Gudarostearen koartel orokorra zegoen eta hara zihoazten batailo asko: “Abioiak pasau zian guri bota barik. Andik gutxira: Danba, danba, danba! Gernikatik keia ataritzen zala ikusi genduan. ‘Kopauta eongo gara?’ Ta abioak ara ta ona. Baña guri ez zozkuen botatzen! Ta orduan zurrumurrua zabaldu zan Gernika bonbardatzen zerela”.⁴⁸ Amuategi batailoia gauerdia aldera iritsi zen Gernikara. Luisen hitzetan hura zen negarra eragiten zuen kaos ikaragarria: “Ta Gernikara eldu giñan. Gabeko amaikak ero amabiak izango zian. Aura zan... Aura zan kaosa! Oraindik animalixak ta pertsoniak ikusten zian noraezian, nondik zebizen jakin barik. Negargarrixa zan aura!”.⁴⁹ Izua eta zorarena ikusten zen han galduta jarraitzen zutenen begietan. Gernikako bonbardaketa eta sutea, frankistek aurretik prestatutako populazioa zibilaren kontrako ekintza izan zen. “Condor legioa” erabiliz, bi ordutan alemaniar eta italiar abioen pilotuek 5.000 bonba baino gehiago bota zituzten merkatua zegoen egun hartan.⁵⁰ Jendea inguratzen eta harrapatzen joan ziren eurak akabatzeko. Milaka hildako eta zauritu sortu zituzten eta Gernika guztiz suntsituta geratu zan, hiriko 318 eraikinetatik 217 guztiz txikituta geratu baitziren. Gernikan gertatu zena, gerren izugarrikerien sinbolo modura geratu da nazio-arte mailan.

Handik Bilbora eramane zituzten eta ondoren Amorebieta-Etxanora, Etxano eta Esturo guduetan parte hartzeko. Etxanoko batailari buruz Luisen hitzak: “An ildako ta zauritu asko eon zian. Nik ezagutzen neban miliziano bat Bueno abizenekua, Eibarko Udal bandan saxofoia jotzen zebana, makilkadaz

⁴⁸ LAZ: AAT, 14 or.

⁴⁹ LAZ: AAT, 14 or.

⁵⁰ *Junkers-52* markatako hemeretzi hegazkin osatzen zuen, Gernika suntsitu zuen Condor Legioak. Hegazkin horiek sei jaurtizaila zituzten, bonba leherkorrak eta su-eragileak batera kargatzeko. Gernikan gainean 250 kiloko bonbak bota zituzten. Jorge Napal: *Gipuzkoa (...) homenaje a sus “niños de la guerra”*, Noticias de Gipuzkoa, 2023/03/17.

akabau zebeñ Mujikan.⁵¹ (...) Bonbardeuan matxinatuek tanke txikixak zittuzen ta etengabeko kañoi-kadak botatzen zozkuen. Gure gañian abioiak be bazeren. Ogeitamar ero berrogei metrotara zoiazen, ta bonbardeoan ondo baño obeto ikusten giñuzen abioetatik bonbak ta kutxak botatzen zozkuen pilotak be. Ez zian abioi aundixak, eztakitt zeñ markakuak zian, baña alemaniarrak bazian. Bai orixe!”⁵² Etxanoko fronte horretan Luis Juanito Azcarateren ondoan zegoen eta bere eskuizkribuetan horrela idatzi zuen: “Juanito (Goian bego) Etxanon (Amorebieta) il zan nere onduan obus batek bere burua suntsitu zionean”.⁵³ 1937ko maiatzaren 16an galdu zuen bizitza Juanitok, 21 urte betetzeko hilabete falta zitzaionean.⁵⁴ Luisek gertaera lazgarri horren lekukoa izan zen. Zornotzan lurperatu behar izan zuten, gorpua ezin zutelako herrira eraman matxinatuen okupazioagatik.⁵⁵

Amuategi batailoiak aurrera jarraitu zuen. 1937ko ekainaren 3an, Lemoatx hartzean, Luisi goizeko zortzietan mendipuntako gurutzera igotzea egokitu zitzaion: “Egun aretan ez zan eguzkirik agertu. Neri gurutzia tokau jatan. Agindua emonda zeuan tirorik ez botatzeko, ezustian arrapatzeko. Ta orrela eldu giñan leenengo abanzadillara. An, preso artu genduan Villafranka Ordiziako 16 urteko mutil erreketek bat. Mutikoa dardarka ta bildurrez jota zeuan!” Luisek mutikoa lasaitzen saiatu zen esanez: “Motel, ez jatsu ezerbez pasauko. Lasai!’ Atzera eruan zebeñ mutikoa, ta guk mendigaña artu genduan. Orduan asi zan tiroketa, Lemoatxeko Arrixetan. Guk zenbatu giñuzen berreun erreketek baño geixao ilda! Erasoa eon zan egun orretan eriotza andixa eiñ genduan, baña gurekin geixao eiñ zebeñ”.⁵⁶ Bere audioan dioenez, egun orretan askatasunaren alde hiru batailoitako komandanteek bi-zia galdu zuten, haien artean euren, Martin Etxeberria izenekoa: “Beste zerbait be bagiñuen: gure komandanteak ez ziala, beste leku batzuetan bezela, atzian geratzen zian oietakuak, bi kilometrotara katalejuekin operazioak nola zoiazen begira. Ez! Gure komandanteak gure aurrean leenengoak zoiazelako! Orregaittik ez da arritzekoahaiak erortzea”.

Beste datu bat nabarmendu nahi zuen Luisek: “Kontua da mendira igotzen giñuztenean, beti guretzat gidariak zerela. Ori da askotan pentsau eta gorapau izan doten gerrako beste detalle bat. Beti eldu biar giñan lekuan, gure zaiñ beti an ziala ingurua ezagutzen zebeñ gidariak, izan eiztarixak ero erri-tarrak. Beti ikusi nittuan pertsonak an, gu eraman biar giñuzten lekura eramateko”.⁵⁷

⁵¹ LAZ: AAT, 15 or.

⁵² LAZ: AAT, 16 or.

⁵³ LAZ: 2K, 9 or. / LAZ: BAT, 20 or.

⁵⁴ “Gogora” Institutuko webgunean hildakoen zerrendan A letrako 1 orr. agertzen da Juan Azcarate Treviñoren fitxa. AHDSS-DEAH Nuestra Señora de Asunción de Sorluze T.10 (unas hojas aparte). AHPB-BAHP, Registro Central de Fallecidos en Campaña. Registro Civil Bilbao Sección 2, 451/1937. https://www.gogora.euskadi.eus/aa82-aplikazi/es/contenidos/recurso_tecnico/gogora_aplik/eu_def/index.html (Sarrera: 2022ko azaroan).

⁵⁵ Sorluze 1936 Lan-taldea: *Isiltasuna Hausten. 1936ko Gerra Sorluzen*, Sorluze, 2015. Juan Azkarate 252 orrialdean agertzen da, “Herritik kanpo lurperatutako plazentziatarren artean”: Zornotzan 1937-05-16”.

⁵⁶ LAZ: AAT, 17-18 or.

⁵⁷ LAZ: AAT, 15 or.

Orduan Lemoatxen “Erreleboa artu zozkuen, ta atsedena artzeko momentua eldu zan. Ta Bilbora jua-teko zortzi eguneko baimena emongo zozkuela zabaldu zan. Bada..., uste dot frontean ez genduala sekulan atsedenerako baimenik izan, ez! Ta tira..., zortzi eguneko baimena! Baña ez zan bete, ta andik Artxandara eruan giñuzten”.⁵⁸ Batailoia Etxanotik Bilbora eraman zuten, Artxandan “Burdin Hesia” defendatzeko. Luisen hitzetan: “Ezertarako balio izan ez zuana”.⁵⁹

Burdin Hesia matxinatuen erasoetatik Bilboko populazioa eta industria babesteko eraiki zen. 80 kilometroko luzera zuen lerroa, lubaki, bunker eta metrailadore-bateriaz osatutakoa, 12.000 gizon, emakume eta nerabek eraiki zuten, euren artean Euzko Gudarosteko zapadore-batailoiak, gotorleku brigadak eta zenbait preso “nazionalak”. Lan hauek guztiek “ez zuten ezertarako balio”, beste arrazoen artean, Alejandro Goikoetxea, Burdin Hesiaren eraikutzaz arduratzen zen ingeniaria, erasotzaileen aldera pasatu zelako eraikuntzaren planoekin. Traizio horrek ahalbideratu zuen matxinatuek Burdin Hesia puntu ahulenetatik erasotzea. Aste bete beranduago Bilbo erori zen. Milaka gudarik eta milizianoek bizia galdu zuten 1937ko ekainean, ehundaka zibil Frantzia eta Santanderreruntz ebakatu ahal izateko.

Bilbon ekainean Amuategi batailoia koartela Baylen kaletik hurbil zeuden eskola batzuetan zegoen. Luisen sekziokoei Bilboko eraikuntza publiko batzuen zaintza-ardura egokitu zitzaizen: “Ordena Publikoko guardiak egitea tokau jatan, San Anton zubian eta Carlton Hotelaren aurrean”. 1937ko ekainaren 19an Francoren tropak hirian sartzen ikusten zituzten errekarren beste aldetik, baina batailoiko parte-eramalea Bilbotik alde egiteko ordenarekin iritsi ez zitzaenez, oso berandu atera ziren hiriko erdigunetik: “Ibaixaren beste aldian, jende asko zeuan zapiekin matxinatuei arrera eitten. Dana kopauta zeuan. Orduan, ortik aurrera, uts eiñ zozkuen gidarixak”. Horregatik, Zorrotzaruntz abiatzean sartu berri ziren indar frankistek eta Bilbon bertan zeuden *Quinta columna*-koek ere, batailoikide asko hil zituzten.⁶⁰ “Naasmen aundiko momentuak izan zian arek! Urten genduan Zornotzaruntz, ta akordatzen naiz bi milizianoen artean, bat Azkoiti deitzen zebena, ametrailadorea jarri zebela kamio baten gaiñean gu andik ateratzeko, ta oriek biak bertan il zian. Erretiratze orretan miliziano asko preso artu zittuzten, ta beste asko il zian Zornotzaruntz joatian. Ta batalloia txikituta geratu zan”.⁶¹ Alejandro Lluviak eta Luis Ariznabarretak, Amuategiko milizianoak biak, ihesaldi horretan parte hartu zuten eta lekukotza berdina ematen dute biek.⁶² “Kontua zen batailoia ez zela erdira be

⁵⁸ LAZ: AAT, 16 or. / “Ezta Lemoatzeko operazioan lortutako arrakastaren ondoren ere, Cristobal Errandonearen 6. brigadako batailoiek ezin izan zuten agindutako atsedena hartu”. Iturria: Guillermo Tabernilla: “La caída de Bilbao. El principio del fin del frente Norte”, in *La Guerra Civil en Vizcaya, 1937, Desperta Ferro*, 9 zk., Madrid, 2021, 38-45 or., 39 or.

⁵⁹ LAZ: AAT, 19 or.

⁶⁰ “Bostgarren zutabea” deitzen zioten, errepublikar zonaldeetan izkutuan errepublikaren kontra eta matxinatu frankisten alde jarduten zuten taldeari. Hilketak, bombak jaurti, sabotaiak... antolatzen zituzten errepublikarren kontra.

⁶¹ LAZ: AAT, 19or. // LAZ: BAT, 2 or. // LAZ: BAT, 2- 4 or.

⁶² *Acorralados por los franquistas, ya dentro de la ciudad, y la quinta columna atacando desde las azoteas, buscábamos salir de la ratonera que era Bilbao. Necesitábamos abrir una brecha para salir por Zornotza hacia Trucios. En una*


eltzen, 200 bat giñuazen asko jota. Ta batailoia berritu zan, 200 barri inguru etorri zian, baña ez zian boluntarioak, “beartuak” zian. Ez genekixan nor zian, ero nor ez zian be. Baña guk Amuategi bezela jarraitu genduan”. Bilbo galdu ondoren euren batailoia guztiz murriztua geratu zenez Rosa Luxemburgo eta Amuategi batailoak batu zituzten Oriñonen.⁶³ Zenbait iturriren arabera Bizkaian eta Gipuzkoan 30.000 baja baino gehiago egon ziren, gudari eta miliziano zauritu eta hildakoen artean.

camioneta instalamos una ametralladora y colocamos colchones para amortiguar el ataque. Cuatro o cinco coches ocupados por milicianos seguían a la camioneta. Lluvia: eskuizkribua EAH 06/07, 82-83 or./Otros se abrían paso hacia Zorroza a tiros de ametralladora en un convoy formado por una camioneta y cinco coches. Gutierrez: Gerra, 151 or.

⁶³ LAZ: BAT, 4 or.

3. SANTANDERREKO FRONTETIK ASTURIASEKO BATAILETARA.

Bizkaiko eta Santanderreko mugetan ekainaren 29an: “San Rokeko bataillan bonbardeo aundixa izan genduan. Nere lagun aundi bat antxe gerau zan lurperauta. Eziñ izan genduan ezerbez eiñ, abioak zetozelako”.⁶⁴ “Kolitzako San Roke” basiliza inguruan izan zen bataila handi hura. Jarraian Santanderren, “Castro Allen” eta beste hainbat gudutan parte hartu zuten, 1937ko abuztuaren 26an hiriburua




Salgo voluntario a la 1ª llamada
Participo en la Toma de San Sebastián. En las confrontaciones en la línea divisoria Guipúzcoa-Navarra contra fuerzas procedentes de esta última se batieron Gaiteria, Euzkarraga, etc. Desde el principio nuestra Unidad está formada por jóvenes de brulce y, en cuanto ideas políticas es plural.
Se rompe el grupo al formarse los batallones y cada cual va donde cree estar mejor encajado. Me adscribo pues al Batallón Amategui que pese a ser de influencia socialista en cuanto a mandos se refiere el Batallón es plural, en sus filas luchan; Socialistas, Comunistas, nacionalistas, anarquistas etc. Participo pues en la lucha en los frentes de Amate, Basalga, Mésaga, Orre y en la descubierta a Sorabuzte como parte de nuestra preparación para operaciones de convergencia que bien pronto esperamos tener. Pero, no pudo ser.
En el gran repliegue de estos frentes, incluidos Villarreal, Gorbua etc. Somos testigos del bombardeo y quema de Guernica, siendo nuestra situación en esos momentos como a unos días o quince días de la ciudad muriera.
Posterior participamos en las batallas de (Amorebieta) Etxano; Esturo etc. y en la toma de Las peñas de Lemona (2-6-1937) donde ese día perdieron su vida en defensa de la libertad tres comandantes de tres batallones incluido el nuestro Martín Etxebarria (S.6) y en la batalla de Arzuanda Bilbao

erori arte.⁶⁵ Bitartean, Santoñarako bidean zihoazela, “Santoñako ituna”-gatik, euren ondotik eibartarren kamioi bat pasatzean, miliziano talde bat kamioira igotzen utzi zuten Santanderrera joateko, Luis haien artean. “Ta Santanderren portura jetsi ginan. Jendez beteta zeuan. Negargarrixa zan aura! Ta portuan ikusi neban kotxe bat bazetorrela zuzen portura. Zzziiizz! Ta uretara jauzi zan. Ta esan zeben jendia zetorrela. Bada, neretzat

jendia bazetorren barruan, buru-iltzea izan zan aura. Bai!” “Gaba eibartar ezagun batzuen etxian pasau genduan ta urrengo goizian barrero portura”.⁶⁶

Amuategi batailoa 1937ko abuztuaren 24ko goizean Sardinero hondartzan zegoen.⁶⁷ Santanderreko portuan kaos ikaragarria zegoen: oihuak, ikarak, zenbait hilketa, bere buruaz beste egin zutenak... Handik itsasotik eba-kuatuak izateko milaka gudari, miliziano eta erbesteratu zeuden itsasontzien zain. Zenbait dokumentutan aipatzen da Santander hiria erortzeaz zegoen uanean, Gipuzkoa eta Bizkaitik iritsitako 100.000 erbesteratu baino gehiago zeudela.⁶⁸



Perdida Bilbao y quedar diezmado el Batallón, nos agrupamos al "Posa de Luxemburgo" interviniendo en las batallas de San Roque y Castro Marín y otras hasta la caída de Santander. Un grupo salimos de Santander en un Velero viejo y es curioso que a la salida de puerto y a poca distancia de la misma se desajeró la nave al chocar contra un banco de arena.
Soy recogida junto a otras seis, por el pesquero "Santa María" de San Vicente de la Burguera. Nos arrojan bombas un avión que sobrevuela sobre nosotros dos o tres veces, y también caen algunos obuses que nos envían un ruido de guerra. Salimos con bien de esta situación y arribamos a Riva de Ibañeta (Asturias).
Nos trasladan a Ceceda donde se forma la Unidad que se llamó "Brigada Vasca" compuesta por homines heterogéneos de Euzkadi; que se batía bravamente en "Peñas Blancas", Malsuca y el Jito, donde le concedieron la medalla de la Libertad. Por último fuimos trasladados a (Trubia) la Berroga, donde se nos comunicó que íbamos al frente de Cataluña pues nuestra Unidad estaba reclamado por el J. Vasco, y estaba a nuestra disposición el Navío de guerra "José Luis Díaz". El embarque según decían dentro de unos días. Pero ocuparon todo el litoral asturiano las tropas de Franco y nosotros quedamos sin salirnos.
Cuando algunos supieron porqué, salieron.

3.1/3.2 Luis Ariznabarretaren gerrako Ipar Fronteko parte hartzearen kronologia. LAZF bilduma

⁶⁴ LAZ: BAT, 4-5 or. / LAZ: BAT, 5 or. / LAZ: BAT, 3 or.


⁶⁵ PARESeKO fitxa 1. CDMH. DNSD- SECRETARÍA, FICHERO, 4, A0148502. “Luis ARIZNABARRETA. Figura como Soldado ascendido a Cabo (...) en el Bon. 3º de la 159. Brigada “1º, Cuerpo de Ejército del Norte, 2ª División. C.G., 8-8-37 (Santander. Carpeta. 7. Serie. “D”. Fol. 173.)” (Sarrera: 2022ko abenduan) // LAZ: BAT, 6-7 or.

⁶⁶ LAZ: BAT, 6-7 orr. / Santanderren Juan Paradasean etxean lo egin zuten.

⁶⁷ Gutierrez: Gerra, 150 or.

⁶⁸ Gutierrez: Gerra, 151 or.

Abuztuaren 24-26 bitartean bertan zirenak baldintza eskasetan zeuden itsasontziak hartzen hasi ziren.⁶⁹ Luisek beste batzuekin batera belaontzi zahar bat hartu zuen, Santanderretik Asturiasera pasatzeko: “Andik atara ginan. Abioi batek bonba batzuk bota zozkuen. Barkuak are-banku batian talka eñ zeban. `Aal dabena bere burua salba deñ!` entzun zan, ta nik uretara salto eñ neban, neure buruari esanez “Emendik baten bat salbatzen bada, neu izango naiz ba. Emen Luis, eutsi eñ biozu”. Ta orrela, ur gañian gora begira nere gorputza eusten eon nitzan”.⁷⁰ Luis desagertutzat eman zuten eta herrira “itsasoan ito zela” iritsi zen.⁷¹ “Aurrerago Deustoko unibertsitatean preso nengoela Soraluzeke emakume batek galdetu zidan: “Baña bizi zara? Nola ez naiz biziko ba? Ez nazu ikusten ala?” (...) “Baiba, ni uretara salto eñ ta agertu ez nitzanez, ikusi ninduenak ni itto nitzala pentsau zeбен”. Baina ez, Luis txikitatik igerilari ona zenez olatuen gainean mantendu zen: “Iru ordu emon nittuan itsaso gañian nere gorputza eusten. La Barquerako San Vicente erriko Santa Maria izeneko itsasontziak zazpi gizon uretatik artu giñuzten. Asko itto zian an, itsasuan”.⁷² Arrantzaleek zazpi milizianoak Ribadesellara eramán zituzten.



3. 3 PARES-en dagoen LAZ-ren informazioa (sarrera 2022ko abenduan): Luis Ariznabarreta Zubiaurre, Gijongo Frontean desagertutako kaboa. Jaiotze datan errua dago, 1915ean jaio zen, ez 1916an.

Militarren arabera Santillana del Mar-eko korridoretik Asturiaseko frontera 4.000 euskal soldaduk lortu zuten pasatzea.⁷³ Santanderreko Armadako Leonardo Salazarrek dio, Santanderreko Armadatik 1.000 gizon pasatu zirela. Euzko Gudarostek zion 10.000 inguru zirela. Jose Antonio Agirrek ere bere

⁶⁹ Lluvia: *Eskuizkribua*, EAH 06/07, 95-102 or.

⁷⁰ LAZ: BAT, 6-7 or.

⁷¹ PARESeko fitxa 2. CDMHDNSD- Secretaría. Fichero, 4, A0148577 “Luis Ariznabarreta Zubiaurre. Natural de Placencia de las Armas (Guipuzcoa); nació el 28 (errua 29an)-10-916; tornero; hijo de José María y Anastasia. Afiliado a la U.G.T. - Cabo desaparecido en el frente de Gijón.” S.M.- Carp. 1390.-Exp.23. (Sarrera: 2022ko abenduan)

⁷² LAZ: BAT, 6-7 or. // 1937ko urte bukaeran, Deustoko unibertsitatean preso zegoela, Benito Arrutiagaren emazteak, sorluzetarra bera, beregana hurbildu eta galdetu ziona.

⁷³ Juan Ibarrola Orueta: *Kirmentasunaren ordaina. Gure historiaren 75 urte. Errepublikako Gudarosteko XXII. Saldoko Buruaren oroitza*, Juan Ibarrola, Arabako Foru Aldundia, 2019, 315, 329, 331 or. / Ibarrola (Laudio 1900-1976), Errepublikar Guardia Nazionaleko Guardia Zibilaren buruzagia zen. Asturiasen, Mazuko batailagatik, 1937ko urrian teniente-coronel, izendatu zuten.

memorietan kopuru bera aipatzen du. Egaña historialariaren ustez azkenengo kopurua gehiegizkoa da, kontuan hartuta 600 gizon inguru zirela batailoi bakoitzean.⁷⁴

Abuztuaren bukaeran Ribadesellan A eta B dibisioak antolatzen hasi ziren, Juan Ibarrola eta Francisco Galan koronelen agintepean. Bi brigadak osatu zituzten Santanderreko hondamenditik salbatu ziren hiru batailorekin, Infiestoko hospitaletik osatu gabe atera ziren zaurituekin, eta Luisek bezala desordenean iristea lortu zutenekin.⁷⁵ Armada berriro antolatzen ari zirenean, gauero “Bostgarren zutabe”-ko jarduera hiltzaileak jasaten zituzten: “Soldaduak errira ataratzen zian ta egunero ildakoren bat agertzen zan. Ze pasatzen da, baña? Egun batian euskaldun guztiok elkartu giñuzten ta bando bat emon zozkuen, agindua izan zan amarretik beerako taldeetan ez ataratzeko, eta gabetan eziñ geinkiela errira atara”.⁷⁶

Cecedan Asturiasko herri txiki batean ideologiaz oso heterogeneoa zen “Euskal Brigada” osatzen ari zirela, garai haietan ezohizkoa zen boluntario bat agertu zitzaizen: “Nik azaltzea nai dot, guk Euskal Brigadan txinatar bat izan genduala, gañera nere eskuadrán. Marinua zan ta Gijonera errepublikarako sumministroak zekarren ingles barku batian eldu zan”.⁷⁷ Chen Agen izena zuen, edo Chang Aking dokumentu militarretan agertzen den moduan.⁷⁸ Chang Ipar Fronte osoan parte hartu zuen txinatar boluntario bakarra izan zen. Eskuadrakideek “Chen”, “Chan” edo “Sanghai” deitzen zioten, eta hemengo hizkuntzarik ez zekienez euskaraz egiten zioten: “Berarentzat Aitorren izkuntza ero Cervantesena gauza bera zian, orregaittik euzkera erabiltzen genduan berari zeozer esaterakuan. Geroxeago miliziano ta gudarien tertulietan entzun dogu Asturiasen sutsuki borrokatu zeban errusiar brigada bat aritu zala, txinatarrak be bazittuana. Baina Asturiasko frentean borrokatu zeban talde ori ez zan errusiarra izan, euskalduna baizik; ta araua konfirmatzeko txinatar bat besterik ez zeola. Ta txinatar onek geurekin eiñ zeban gure kanpaina osua, gure zorte bera sufrituz”.⁷⁹

Zenbait milizianoaren ahozko zein idatzizko lekukotzetan euskeraren inguruko anekdotak kontatzen

⁷⁴ Jose Antonio Agirre, *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*, Foca, Madrid. 2004, (1.a Buenos Aires, 1943). / Ibarrola: *Kirmentasunaren*, 315 orr. / Egaña: *Gerra*, 94 or. / Vargas Alonso: “Milicias”, 15 or. Vargas Alonsok dio batailo bakoitzaren soldadu kopurua, 1936ko urrian teorian 750 inguru zela, eta 1937an 610 gizonera jaitsi zela.

⁷⁵ Hiru batailoiak: “Larrañaga”, “Maoc-Guipuzkoa” eta “Isaac Puente”. Ibarrola: *Kirmentasunaren*, 325 or./ F. Galan koronela (San Fernando 1902 - Buenos Aires 1971).

⁷⁶ LAZ: BAT, 8 or.

⁷⁷ LAZ: BAT, 11-12 or. Luis Ariznabarreta eta Chen Agen (Chang Aking) eskuadrakideei buruzko argitalpen guztien linkak, artikularen azken orrialdean. // Tsou, Hwei- RU eta Tsou, Len, 2013, *Los brigadistas chinos en la guerra civil. La llamada de España (1936-1939)*, Catarata, Madrid. (1edizioa txineraz, *Ganlan Guiguan de Zhaohuan: Canjia Xibanya Neizhan de Zhongguoren (1936-1939)* (jatorrizko izenburua), Taipei, Taiwan, 2001. // Gerra Zibilean, 53 herrialdetako 35.000-40.000 nazioarteko brigadistek parte hartu zuten, Europako botere demokratikoen neutraltasunak eta esku-hartzetik ezak, faxismoaren aurkako borrokan parte hartzera bultzatu zituen. TSOU: *Brigadistas*, 8 orr. // Francisco Manuel Vargas: “Voluntarios internacionales y asesores extranjeros en Euzkadi (1936-39)”, in *Desperta ferro. Historia Contemporánea*, 34. zk., Leioa - EHU, Bilbo, 2007.

⁷⁸ LAZ: *Un chino en el Ejército Vasco* eskuizkribuan, 1979. / Chang Gijondik Cecedara, Luisen eskuadrara, euskal intendentziako bi euskaldunek eraman zuten./ Egaña: *Gerra*, 95or. Asturiaseko ekialdeko fronte osoa Euskal intendentziaren ardurapean zegoen.

⁷⁹ LAZ: *Rusos y chinos en el Ejército Vasco* eskuizkribua, 1979. Guk sortutako Chang Aking-i buruzko informazioa bibliografian. Tsou ikertzaileek idatzitakoa ezagutzeko, Tsou: *Brigadistas*: 39-40, 44, 202-209, 226-227 or.

dituzte. Horietako bat MAOC-2 batailoiko Manuel Goenagarena da: “Asturiasera eldu giñenean, gazte batzuen oiak entzun genituen: Badatoz errusiarrak! Euzkeraz egitten entzun zutelako”.⁸⁰

Un chino en el Ejército Vasco

Esto que parece una paráfrasis, en los hechos es un hecho real.

En el curso de la caída de Vizcaya, cuando se puso de manifiesto el cese de la guerra de 1937. Por circunstancias que no voy a detallar, yo me encontraba en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya y en particular en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya y en particular en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya...


En el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya y en particular en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya...

Rusos y chinos en el Ejército Vasco

En el curso de la caída de Vizcaya, cuando se puso de manifiesto el cese de la guerra de 1937. Por circunstancias que no voy a detallar, yo me encontraba en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya y en particular en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya...

En el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya y en particular en el momento que se estaba combatiendo en el campo de batalla de Vizcaya...

3.4/ 3.5 LAZ-en zenbait eskuizkribu: 3.3 “Un chino en el Ejército Vasco” eta 3.4 “Rusos y chinos en el Ejército Vasco”.



3.6/ 3.7 Viñolas Garcia zuzendariaren *Prisioneros de guerra* dokumental frankistan, Chang Aking agertzen da 1938an Cardeñako San Pedro konzentrazio zelaian. Bi fotogrametan: Berak idatzi zuen eskuizkribua eta bera, datuak idazten.⁸¹

Asturiaseko kanpaina, “Shangai” eta Luis, elkarren ondoan egin zuten zenbait batailetan parte hartuz. Llanetik La Berrugaraino, gailurrez-gailur, batailaz-bataila bidea eginez: Mazuco, Peña Blanca, Fito... Mazuco bataila odoltsuak, 1937ko irailaren 5etik 14ra arte iraun zuen.⁸² Ekialdetik 33.000


⁸⁰ Azurki: *Maizales*, 253-254 or. M. Goenaga Illaramendi (1915- 2009). Miembro del Cuerpo Expedicionario de Euzkadi en Asturias y oficial del Batallón MAOC-2 Guipúzcoa (P.C.) Oviedon 1937ko otsailean gertatua.

⁸¹ Viñolas Garcia: *Prisioneros de guerra*, España Productora, Departamento Nacional de Cinematografía, C.C. San Pedro de Cardeña, Burgos, 1938.

⁸² Juan Antonio de Blas: *El Mazuco. La defensa de lo imposible. La guerra civil en Asturias*. Jucar. Gijón. 1986, 369-383 or.

gizonekin zetozen matxinatuen tropek talka egin zuten hiru euskal batailoien erresistentzia handiarekin. Ibarrola komandanteak bere memorietan dio, 6.000 soldadu errepublikarrek faxistak hamar egunetan geldiarazi zituztela. Bi ejerzitoen artean alde ikaragarriak zeuden, bai armamentuetan, baita soldadu kopuruan ere, eta batez ere abiazioan. Matxinatuen ejerzitoak Condor Legioa erabili zuen etengabe batailako gailurrak bonbardatzeko eta metrailatzeko, baita bertako herriak eta hiriak ere. Errepublikar ejerzitoaren jarrera, defentsa eta erresistentzia izan zen, negua iristean dena atzeratuko zela esperantzarekin, horrela ere aukera izango lukete nazio-arteko laguntza jasotzeko, europear estatuek egin zuten *Pacto de no intervención* izeneko apurtuz.⁸³

Juan Ibarrolak koronelak bere memorietan aipatzen du, Santanderren bezala, Asturiasen dena atzera egitea izan zela.⁸⁴ Asturiaseko Mazuko batailan bere agintepean matxinatuen kontra parte hartu zuten 6.000 errepublikar soldaduetatik, 1.734 gizon bakarrik geratu ziren aurrera jarraitzeko. Beraz, Mazuko bataila gertatu ondoren, Ibarrolak bere troparen %71a galdu zuen.⁸⁵ Luisen Euskal Brigadako eskudra han zegoen: “Mazucon burruka andia izan genduan, Peñas Blancas izenekoan.(...) Asko hil zian an”.⁸⁶ Peñas Blancas irailaren 21era arte defendatu zituzten, irailaren 22an matxinatuen tropak sartu ziren arte. Ipar Errepublikar Armadak Mazuko batailako parte hartzaileak kondekoratu zituzten “Askatasunaren domina” eskeiniz, Luis eta eskuadrakideak horien artean. Luisek bere koaderno batean asturiar frontearen zortzi eskuadrakideen izenak idatzita utzi zituen, horietako lau markatuz hildakoen gurutzarekin:



“Valentín Guezalaga (Eibar), Reinaldo Guisasola (+) (Eibar), Txinatarra-Sanghai, Alberdi Jose Antonio (+) eta Juan anaiak (+) (Mutrikuko Aldekoatarrak), José Sagarduy (Bilbao), Federico Loichate López (+) (Eibar): eta Luis Ariznabarreta (Soraluze)”⁸⁷

3.8 Luisen eskuizkribua: 1937ko irailean, Asturiasko eskuadrakideen izenak . LAZ: 1K, 24 orr. LAZF. bilduman.

⁸³ Ituna hori Europako 27 herrialdek adostutakoa izan zen. Helburua izan zen ez bidaltzea Gerra Zibileko lehiakideei, ez laguntza armamentistikoa, ezta soldadurik ere. Bitartean, matxinatuen taldeak nazismo alemaniarren eta faxismo italiarren babesa jaso zuen gerra hasieratik, armamentu modernoa, asesoreak eta milaka soldadu bidaliz. Errusiak 1936ko urrian hasi zen Errepublikari armak saltzen eta bidaltzen, kopuruz eta kalitatez askoz txikiagoan.

⁸⁴ Ibarrola: *Kirmentasun*, 335 or.

⁸⁵ Ibarrola: *Kirmentasun*, 376 or.

⁸⁶ LAZ: BAT, 9 or.

⁸⁷ LAZ: 1K, 24 orrialdean eskuadrakideen izenen azpian idatzita dagoen oharrak horrela dio: *A la muerte en el Mazuco de uno de los Hnos. Alberdi, cabo a la sazón, ocupé su puesto, el tiempo que duró aquella batalla.*

Asturiasen haitzez-haitz gailurrak defendatzen soldaduek oinaze handiak jasan zituzten. Askotan in-
tendentziarik gabe, soldadu eta presoen memorietan errepikatzen den sufrimentu handienetako bat
gose ikaragarria da: “Cabrales izeneko zonaldian eon giñanean ibaira bomba bat botatzen genduan, ta
berrogeitamar amuarrañ ero geixao artzen giñuzen”. Askotan sagarrak milizianoen elikadura bakarra
izaten zen. Ipar Frontea galtzear zegoen azken egun batean, Luisen eskuadrakideek euren artean esan
zuten: ‘Ilko gaittuzte baña, gutxienez, tripa beteta izango da’, ta oilo bat lapurtu giñuen”.⁸⁸ Ipar fron-
tearen azkenengo asteetan errepublikar tropa guztiak goseak hilik zeuden.

Mendebalderuntz, erretiradan, azken posiziora iritsi ziren: “La Berruga posizioan gendela jakinarazi
zoskuen urrengo goizian, seiretan, atara biar giñala. Euzko Jaurlaritzak erraklamatuak izan giñan
Frantziara ta andik Kataluñako frentera eruateko. Musel portuan “Jose Luis Diaz” gerraontzia gure
zaiñ eongo zan. Ta azken gaba aretan neri guardia tokau jatan goizeko iruretan. Bakarrik eon biar
nitzan. Ta ori izan da nere bizitza osuan beldur andixen pasau doten eguna! Oso urbil, nazionalak
berba eitten entzuten nittuan eta bildur handixa pasau neban. Obsesionatu nitzan, an bakarrik utziko
nindutela ideiarekin. Baña ez! Seiretan etorri zian nere billa, ta atara giñan andik”.⁸⁹ Bere osotasun
fisikoaren arrisku-mehatxuak izua eragin zuen Luisengan.

Trubiara jaitsi ziren eta han komandanteak esan zien kopatuta zeudela: “Andik egun gutxitara
ontziratu biar giñuzten, baña Asturiasko kosta osua frankistek okupau zeuben, ta guk ezerbez jakin
barik. Beno, batzuk jakin zeuben, andik atara zialako”.⁹⁰ Luisek erdi ezkutuan bere ezkuizkribu batean
erakusten duen kexa horixe da: zenbait ofizial eta miliziano ixilpean atera zirela Asturiasetik, mili-
ziano gehienei ezer esan gabe. Zenbait Euskal Armadako ofizialen memorietan aipatzen da barkuetan
ez zegoela lekurik guztientzat alde egiteko, eta batzuk aukeratu zituztela Asturias bihurtu zen tranpa
hartatik ateratzeko. Badugu gertaera hori baieztatzen duen Alejandro Lluviaren testigantza, une har-
tan ametrailadoreen konpainiako komisario-delegatu politikoa zena. 1937ko urriaren 20an gertatu
zen: “Txisst ixilik! -agindu zigun sarjentuak kamionetatik. Azkar! Askatu kañoia eta ametrailadorea.
Bagoaz! Bagoaz? Nora? Ekar ezazue munizioa! Ahopeka hitz egizue, ohartu ez daitezela, ez mili-
zianoak ez inor, karruak abandonatzen ditugula”.⁹¹ Gijongo porturako bidean Alejandro Lluviak,
trintxera inprobisatu haietan geratu ziren milizianoak gogoratu zituen: “Sekulako sorpresa eta nahas-
menean geratuko ziren guk abandonatutako eta desarmatutako karruak ikustean. Izugarria da gerra!
Zerbait sakona hausten denean, izua eta kontserbazio-instintua azken ondorioetara eramaten da”.⁹²
Luisek bezalaxe, beste milizianoek ere mina handia hartu zuten, Francoren tropen eskuetan abando-
natuta sentitzean. Zenbait ofizialek ezin izan zituzten bere soldaduak abandonatu, zorte bera edo

⁸⁸ Luis Ariznabarretak familiari kontatua.

⁸⁹ LAZ: BAT, 9-10 or.


⁹⁰ LAZ: BAT, 9-10 orr.

⁹¹ Lluvia: *Eskuizkribuak*, EAH 06/07, 107 or.

⁹² Lluvia: *Eskuizkribuak*, EAH 06/07, 108 or.

okerragoa jasoz.

Hiru egun lehenago, urriaren 17an, britainiarren laguntzaz Asturiasko ebakuazioa prestatzen hasi zen, ahalik eta pertsona gehien handik itsasontziz ebakutzeko helburuz.⁹³ Lehenago, urriaren 10etik, hasita zeuden hainbat politiko eta mandatarien ihesaldiak. Urriaren 20an Asturiasko Kontseilu Subiranoak, zenbait politiko, ofizial eta militar ihes egin zuten barkuz.⁹⁴ Bi gertaera garrantzitsuak izan ziren pertsona gehiago handik ez ateratzeko. Bata, “Jose Luis Diaz” errepublikar destruktorearen ihesaldia Ingalaterrara, Falmouth-en zenbait ofizialek desertatuz. Eta bestea, urriaren 20an Musel portuan “Ciscar” destruktorearen hondoratzea frankisten bonben ondorioz.⁹⁵ 1937ko urriaren 21ean tropa faszistak Gijon eta Avilesen sartu zirenean, Ipar fronteko errepublikar armadaren amaiera izan zen. 2003tik Oviedoko Unibertsitateak egin dituen ikerketa batzuen arabera, Asturiasen 27.000 hildako baino gehiago egon ziren: borrokan hildakoak, biktima zibilak, exekutatuak eta bi aldekoen kontrako errepresioetan.⁹⁶



EUSKADI: Soraluze (1936/07/18). Gipuzkoa-Nafarroko mugak: Beasain, Gabiria, Zumarraga, San Adrian, Arrate, Basalgo, Malzaga, Irure, Soraluzeko deskubieta... Fronte hauen despliegeak Villarreal, Gorbea.

Gemikako bombardaketa, Etxanoko bataila (Amorebieta, Esturo...), Lemoatz bataila (1937/06/03), Aitzanda bataila, Zugaztieta, Bilbon ordena publikoan, Bilboko galera (1937/06/19).

SANTANDER: Kolitzako San Roke, Castroallen eta beste bataila. Santanderreko galera (1937/08/26).

ASTURIAS: Santanderretik (1937/08/26) -Ribadesellara, Ceceda: Brigada Vasca, Mier, Allert(s), Villanueva de San Pedro, Arenas de Cabrales, Ariondas, Infiesto. Batailak: El Mazuco, Peñas Blancas, El Fito, La Berruga...

Atxiloketa: Trubia (1937/10/20) edo Mieres (1937/10/22).

⁹³ Ibarrola: *Kirmentasun*, 335 or.

⁹⁴ 1937ko abuztuaren 24an eraturako Asturiasko Kontseilu Subiranoak bi hilabete eskas iraun zuen.

⁹⁵ Egaña: *Gerra*, 99 or.

⁹⁶ Amaia Caunedo Dominguez: *Las investigaciones sobre la guerra civil y la represión en asturias en la Universidad de Oviedo*. Universidad de Oviedo, 2019, 81-90 or./ <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7457046> (Sarrera: 2023/06/08). Caucedo, bertako ikertzailea, Asturiaseko hobi komunaren mapa eratzen ari da.

4. IPAR FRONTEKO BUKAERAN PRESO ERORI TRUBIAN

La Berrugatik Trubiara abiatu ziren, lehenago armak errekarra botata. Han Luisek lehenengo aldiz ikusi zuen euren komandatea. Honek esan zien denak batera joan behar zirela errepresalia gutxiago jazateko. Luisek aipatzen du 2.000 soldadu inguru zihoaztela elkarrekin. Trubian 1937ko urriaren 20an, beste milizianoekin batera, preso hartu zuten: “Gu moruak ta lejiñoak arrapatu giñuzten”.⁹⁷ Hor bukatu zen Luisen Ipar fronteko parte hartzea. Soraluzetik atera eta Trubiaraino iritsi zen. Hain zuen, armagintzara dedikatutako bi herrien arteko bidea egin zuen hamabost hilabetetan.

Trubiatik Mieresera preso eraman zituzten: “Mieresen eon giñan egunetan ez zozkuen jatekorik emon! Egunen baten sardiña laten bat erori zan, baña besterik ez. Lejiñoakoeri jaten nola emoten zozten ikusten genduan, ta guri begiak joaten jakuzen”.⁹⁸ Ondoren Leonera: “Ta an danok giñan sanitarioak. Danok esaten genduan: Ni? Sanitatean! Sanitatean! Sanitatean! Orduan nor zan tiruak botatzen zebana?”⁹⁹ (...) “Ta or asi zian gure oñazeak, gure zigorrak. Ta Leonen gabetan farolekin etortzen jakuzen: ¡Oye tú venga! Zure aurpegixak baten baten antza bazeban, galduta ziñan; zergaittik oiek ez ziñuzen barrero ikusten”.¹⁰⁰ Aipatutako Oviedoko unibertsitatearen ikerketaren arabera, Asturiasen exekutatuak 6.000 inguru izan ziren.

Luis eta “Chen” San Marcos konzentrazio esparruan elkarrekin egon ziren: “Beti nerekin zebillen, beti nere atzetik, ta eruan giñuzten binaka deklaraziñoak eittera, ta an txinatarra banandu zeben, ta ez neban berriro ikusi”.¹⁰¹ San Marcosen betiko galdu zuen Chen; hala ere, Luisek ez zuen laguna ahaztu eta ia mende erdia pasa ondoren *Un chino en el Ejército Vasco* eskuizkribuan adiskidea gogoratu zuen, hitz hauekin agurtuz: “Sanghai laguna, Gasteizko txoko onetatik, Euzkadin, besarkada eta agur bero bat, biotzez, zuri”.¹⁰² Chang Aking-ek zazpi astetan parte hartu zuen Asturiaseko frontean, eta sei urte eduki zuten preso zigor ikaragarriak sufrituz, 1943ko irailean Miranda de Ebro konzentrazio-eremuan libre utzi arte.¹⁰³

⁹⁷ Luisek *Gerrako kronologia* eskuizkribuan idatzi zuen, Trubian atxilotu zutela 1937ko urriaren 20an. Berak gorde zuen Miranda Ebroko konzentrazio eremuko fitxan jartzen du, Mieresen preso hartu zutela 1937ko urriaren 22an. LAZF bilduman // 2.000 soldadu zihoazela dio Luisek, LAZ: BAT, 10 or. / LAZ: BAT, 19 or.

⁹⁸ LAZ: BAT, 19 or.

⁹⁹ LAZ: BAT, 12 or.

¹⁰⁰ LAZ: BAT, 10 or. / LAZ: BAT, 12 or.

¹⁰¹ LAZ: BAT, 12 orr. // “Chang Aking” presoaren izena zenbait dokumentu militarretan agertzen da./ 1938ko *Prisioneros de guerra*, frankistek nazioarteko propagandarako sortutako filman, Chang Aking preso agertzen da bere datuak txineraz idazten Cardeñako kontzentrazio-esparruan.// PHOENIX TV: Chinese Volunteers in the International Brigades, Spanish Civil War (1936-1939), txinatar dokumentala, Hong Kong, 2021. Dokumentalean Aking eta Luis agertzen dira. https://youtube/XPSjWA9wDx8?si=iVK64xy7hFOnOn_Q. // Las Brigadas Internacionales y los Voluntarios Chinos erakusketa ibiltarian, Aking eta Luisi eskeinitako panelak. Asociación de Promoción e intercambio Hispano-chino, Madril, 2021ean eta Rivas-Madrilen 2023ean.


¹⁰² Luisek, *Un chino en el Ejército Vasco* eskuizkribuan idatzitako agurra, 1979aren inguruan: Amigo Shanghai, desde este rincón de Gasteiz en Euzkadi, besarkada eta agur bero bat biotzez zuri. LAZF bilduman.

¹⁰³ Avilako Artxibo Militarrek (AMA), 2021ko maiatzaren 24an, Begoña Ariznabarretari bidalitako dokumentuek baieztatzen dute, Chang Aking 1943ko irailean 21ean Txinako legazioaren ordezkaria zen Moncha Wei-ri entregatu ziotela.// José Ángel Fernández: Historia del campo de concentración de Miranda de Ebro (1937-1947), Ed. J.A. Fernández. Miranda de Ebro, 2003. Chang Aking-en izena agertzen da.

1937ko bukaeran Leongo konzentrazio esparrutik Santoña presondegira eramán zuten Luis, eta handik Bilbora. Deusto Unibertsitatean, konzentrazio esparrua bihurtuta, hiru hilabete inguru eman zituen: “Deitzen zozkuenean konsigna bat emon biar genduan Francorentzat lanik ez eitteko: denok analfabetoak ero ofiziorik gabekoak ginala. Baña gero, lanbiderik gabekoi lan geixao jarri zozkuen! Lanbiderik okerrena erori jakuzen”.¹⁰⁴ Bortxazko lanetara kondenatu zituzten.

Deustuko Unibertsitatean, 1937ko bukaeran edo 1938ko hasieran, Luisek preso han jarraitzen zueanean, Eulogio Azcarate, Juanitoren aita, eramán zuten hara, bera ere preso. Bertako ikasgeletan elkar topo egin zuten. Luisek bere koaderno batean nolakoa izan zen topaketa lazgarri hura deskribatzen du:

“Eldu barri dira Deustoko Unibertsitate onetara preso, plaentziatar langille tekniko kualifikatuen plantilla, guztiak artilleriako armetan adituak, batez be aire kontrakoetan. Taldeko batzuk lortu zebeñ Gijongo Musel portutik ataratzera Frantziara, ta andik Cataluña aldera.(...) Nik egun batzuk daroiatzat unibertsitate onetan destinuaren zaiñ, seguru Langilleen Batailloi baten zaiñ. Beraz, nere erritarrak agurtzera urbiltzen naiz eta orien artean Don Eulogio Azcarate dao. Berak ni ikustian, besarkatu egitten nau, etengabe bi itz auek errepikatuz: ‘Gure Juanito!! Gure Juanito!!’ Oso gaixo dator gizona. Gijondik Bilbora itsasontziz ekartzian sekulako kalbarioa izan dau. Bere osasun egoera oso kritikoa da, eriotzaz zauritua daola uste dot. Juanito bere semia (G. B.) Etxanon (Zornotza) il zan, nere onduan, obus batek jota”.¹⁰⁵





4.1 - LAZ: 2.K., 7 or. LAZF bilduma.1937ko bukaeran edo1938ko hasierako hilabeteetan Deuston.

Eulogio Azcarate, Bilbotik Asturiasera gerran mobilizatutako industrietan bidalia izan zen, eta barkez Gijondik Deustoko Unibertsitateera preso eramán zuten, beste plaentziatar armaginekin batera. Larri gaixorik zegoen aitaren min handia sentitzeak eragin sakona sortu zuen Luisengan.

¹⁰⁴ LAZ: BAT, 13 or.

¹⁰⁵ LAZ: 2KT, 7. or.



4.2 / 4.3 Luis Soraluzeko udaletxean Juanito Azcarateren heriotz ziurtagirian sinatu zuen, bere heriotzaren lekuko moduan. LAZ: 2K, 9 or. LAZB bilduma.

Preso erori ondoren, Luisek ibilbide luzea jasan zuen, frankistek jarri zizkioten zigor krudel haiek betetzen, Preso-Langile Batailo Disziplinarioetan (BDTP) “bortxazko lanak” eginez. Baldintza ezin okerragoetan lau urtetan izan zuten preso: Asturias, León, Santander, Bizkaia, Burgos, Soria, Teruel, Cuenca, Guadalajara, Castellón, Burgos, Miranda, Donostia, Loiolako presondegia; eta azken urtea, Gipuzkoko Gaintzurizketan eta Jaizkibelen.

Preso zeudela bortxazko lan anitz egin behar izan zituzten: gerrako materiala bildu, eraikuntzak eta karreterak konpondu, trintxerak egin... Frankistek irabazitako hiri edo herrietan sartzera zihoazte-nean, “lehenengo hilaran errepublikar presoak jartzen zituzten, “nazional”-en kontrako erasoak izatekotan eurak, presoak, jasotzeko”¹⁰⁶ Luisek hitzetan: “Guk bonbak biltzen giñuzen. Alanbre-esietan beti geratzen zian bonbak. Ta lagun bat il eiñ zan bonba batek estanda eiñ zionean. Bilboko beste bat, kamarerua zana, ori dudatan il zan ala ez zan il, geroago agertu zan. Baña gizona ez zan leengoa izan, ez. Zegaittik guztiz suntsitua gerau zan”.¹⁰⁷ Luisek egin zuen bortxazko lanetako bat frontean geratzen ziren bonbak biltzea eta desaktibatzea izan zen.

Zenbait gertaera garrantz kontatu zituen Luisek, garai krudel haietan gertatutakoak. Oinaze handiak jasan zituzten. Adibidez, Santanderren, Arija herrira iristean: “Arijan eon ginan Reinosatik gertu, an kristal-fabrika bat zeuan, ta bertan lintxatu nai izan giñuzten”. Hainbat biztanleren eraso jasan zuten

¹⁰⁶ Antonio Loinaz gudariaren testigantza (Luisen Gasteizko laguna), berak Luisi emandako fotokopietan. Amaia Mendizabal Elias: *Azpeitiarrak en la Guerra de España*, Testimonio Antonio Loinaz Etxaniz. Uztarría. Azpeitia, 2006.

¹⁰⁷ LAZ: BAT, 18-19 or.

errepublikar presoak zirelako.¹⁰⁸ Gerra bukatzean Cuencan preso jarraitzen zuenean, egunero bi orduko baimena eman zieten kalera ateratzeko. Luis lehenengo egunean kalera atera zen. “Han tumultu handia zegoen: “Zer pasauko ote da?” galdetu zion bere buruari. Kaletik bazetozen zenbait preso binaka lotuta goardia zibilekin. Jendearen ondotik pasatzean, kalean zegoen jende-multzoa presoek kontra hasi zen: “Batek jotzen zittuen, bestiak ttu botatzen zotsen ta beste batek irañak... Gabian urkatu zittuzten. Ta ni eziñ izan nitzan barrero kalera atara. Orixe da egi osua! Lagunak esaten zozten eurekin juateko; baina nik, ezetz! Jende ori ez dotela barrero ikusi nai, ezetz! Ta ez nitzan barrero kalera atara”.¹⁰⁹

Jendearen jarrera aztertzeke, behin nekazari auzo batetik pasatzean Luisi gertatu zitzaion gertaera adierazgarria da. Hiru urteko ume bat kotxe batek harrapatzetik salbatzera bota zen. Beste presoek gertatutakoa ikusi zuten eta pentsatu zuten Luis eta umea txarto aterako zirela istripu hartatik. Baina ez, biak onik atera ziren, Luisen fraketan urratu batzuk besterik ez. Luisek izkribu honetako azken esaldian aipatzen du, salbatu zuen umearen aitaren jarrera: “Umiaren aitak pentsau zeban gu giñala....., ta agurra gogo txarrez eiñ zoskun”. Erantzun hori ideologiagatik edo beldurragatik izan zitekeen.¹¹⁰ Horrelako jarrerak askotan errepresioan oinarrituta zeuden. Diktaduraren beldurrarengatik herritar askok erakutsi nahi zuten, euren frankismoaren aldeko jarrera ezin zela zalantzan jarri.

Herritarren solidaritatea neurtuago jaso zuten. Hala ere, herrietatik pasatzean, ausartak zirenak, jarrera duina eta gizatasuna erakutsiz, ahal zuten laguntza ematen zieten: arropak, janariak... Luisek bazuen horren adibide bat, Bizkaiko Sudupe herrian gertatutakoa. Preso taldeak herria zeharkatu zuen, erdi bilutsik eta lotsatuta, erropa guztiz urratuta zeramatelako. Hurrengo goizean herriko bi emakume hurbildu ziren gaua pasatu zuten tokira, presoentzat bildu zuten erropa eta janaria presoek artean banatzeko. Hurrengo hilabeteetan euren itxura askoz hobea izan zen, Ontanedako argazkian (4.4) ikusiten den moduan.

Presoen arteko solitaritatea ere handia izan zela aipatzen du Luisek. Berak, familiarekin kontakturik ez zeukanez, ez zuen paketerik, ez berririk jasotzen, eta lagunak ahal zutena ematen zioten. Esperimentzia traumatiko berberak sufritzean talde pertenezkoa eta batasuna sortzen da gizakiongan, eta horiekin lotuta solidaritatea taldekoen artean.

¹⁰⁸ LAZ: BAT, 15 or.

¹⁰⁹ LAZ: BAT, 15-16 or.

¹¹⁰ LAZ: *Salvar a un niño* (Ume bat salbatu) eskuizkribua, datarik gabe. LAZF bilduma.




4.4 1938an Ontanedako balnearioan “87 Preso-Langile batailoia”.

Beste batzuen artean: Ciriaco Cirion, Blanco, Tomas Igartua, Jose Etxebeste, Mikel Amezttoy, Vicente Lopez, Paulino Aizcorreta, Beristain, Luis Ariznabarreta (behean ezkerretik bigarrena, eserita), Juan Gabancho, Jose Fernandez, Andia, Roque Landaberea, Espinosa... (Ariznabarreta familiaren argazkia. Luis Ariznabarretak Carlos Blasco Olaetxea Fondonari kopia bat eman zion. Orain Euskadiko Artxibo Historikoan kopia dago: K02_H077_2 signatura.

Solidaritatea eta heroismoaren adibide modura, miliziano eta gudari askoren testigantzen artean, Alejandro Lluviak idatzi zuena, gertaerarik adierazgarriena iruditu zaigu. 1937ko abuztuaren 26an gertatu zen, tropa frankistak Santander hiria hartuta. Portutik bidoi asko gasolinaz gainezka zituen “Jesús del Gran Poder” motorean, berrogei pertsona ihesi atera ziren, euren artean emakume bat. Ezkutuan irten ziren arren, txalupa batetik ametrailatuak izan ziren eta horietako hogeit hamar pertsona, erasoaren beldur, itsasora bota ziren. Barkuan jarraitzen zutenek amesgaizto handi haren eragin zapaltzailea sentitzen zuten bularretan, itotzen ari zirenen ahotsak itzaliz zihoazela entzuten zuten bitartean. Kostaldetik oso gertu nabigatzen zihoazen. Gauerdia pasata, atsedena hartzeko lekuren baten bila hasi ziren. Amuategiko milizianoak gertatutakoa kontatzen du: “Parez pare, nigandik bi metro baino gutxiagora, gizon bat bidoiaren artean atsedena hartzeko lekua egiten saiatzen ari zen. Eta okerrean bururatu zitzaien, esku batean txiskero baten garra agertu zitzaion. Bapatean, sugar batek txalupa argitu zuen, lehenengo bidoiaren gainezka zegoen gasolinak su hartu zuen. Izuak hartu gintuen eta harri eta zur geratu ginen, inoiz ikusi ez genuena gertatu zenean: gizonak bere buruaren gainetik sutan zegoen bidoiak jaso zuen, eta garrak bere gorputza hartuta, giza sugar handi isil bat uretara bota zen. Dena segundo labur batzuetan gertatu zen. Iluntasuna lehen baino beltzagoa iruditu zitzaigun. Denok aho batez esan genuen: Sinesgaitza egin duen baldarkeria. Baina are sinesgaitzagoa gizonak erakutsi zuen baretasuna eta amildegia likido hartara bota zenean erakutsi zuen heroismo ikaragarria, bere sakrifizioarekin saihestu zuen tragediaz, zalantzarik gabe, jabeturik”.¹¹¹ Hain harrigarria, hain ustekabekoa, hain fantasmagorikoa eta aldi berean benetakoa izan zen gizonaren heroismo hura, Alejandro Lluviaren oroimenean bizitza osorako argazki ikaragarri baten oroitzapen plastiko modura finkatuta geratu baitzen.

¹¹¹ Lluvia: EAH 06/07, 95- 96 or., 1982-84 ingurukoa.

5. URTE BETE SOLDADU-GATIBU GAINZURIZKETAN ETA HONDARRIBIAN



5.1 Luis, Jaizkibel mendian preso egon zen urte bete, BTPS-an, trintxerak egiten zigortua. (1940-1941)

1940an Luis hiru urte preso eman ondoren herrira eraman zutenean, lauzpabost plaentziar presorekin batera, trenetik jeitsi eta guardia zibilen koartelean entregatu zuten. Han atxilotua egonda, jakin zuen familia koartelera joan zela bera nola zegoen jakitera, baina semea ikusten ez zieten utzi. Luisek hiru urtetan ez zuen familiaren berririk izan, eta kezkatuta zegoen bera bezala preso zegoen Lucas anaia-rengatik.¹¹² Familiari gutun bat idatzi nahi zion esateko, hiru urtetan lan behartuetan zigortuta pasa ondoren, zein zen euren benetako egoera latza. Baina Luisek bazekienez euren egoera tamalgarriari buruz idaztekoan errekiatuko ziotela gutuna, beste modu bat aurkitu behar zuen: “Nik familiari esan nai notsan txarto gendela, baña gutunak errebisatzen zittuzten”.¹¹³ Orduan bururatu zitzaion Luisi nola esan familiari. Berak bazekien familiak bazekiela Juanito laguna Etxanon hil zela obus batek burua suntsituta, eta jarri zuena izan zen: ‘Gaur Juanito Azcaraterekin topo eñ dot. Bera ni baño obeto dao’. Ni txarto neuala esateko, ildakoa ni baño obeto zeuala esan neban. Goardia Zibilak eziñ zeban interpretatu, baña etxian bai”.

Luisi frankistek ezarri zizkioten zigorrak ez ziren hor bukatu, beste milaka gazte-presori gertatu zitzaizen moduan. 1940an herritik Donostiako errekluta-kajara bidali zuten. Soldaduzka egin behar zuela aitzakiarekin, zigor berarekin mantendu zuten: “Ondarribira bialdu nindduen batallói disziplinario batera, Jaizkibel mendixan eon ginan. Ta an beste urte bete emon neban trintxerak egitten”.¹¹⁴ Gaintzurizketan eta Hondarribian (Gipuzkoa) lan behartuak egitera zigortu zuten. Jaizkibelen trintxerak egiten ibili zen Pirineoetako lerrorako (P. lerroa). 1939an Bigarren Gerra Mundiala hastean, frankistek sekretupean Pirinioetako lerroa indartzen hasi ziren preso-gatibuak erabiliz; makiengandik eta Europatik zetorkien arrisku hipotetikoaz defendatzeko asmoz.¹¹⁵ “An be apaizak mezia emotera

¹¹² LAZ: BAT, 15 or.

¹¹³ LAZ: BAT, 17-18 or.

¹¹⁴ LAZ: BAT, 14 or. LAZF bilduma. Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores Penados (BDSTP) Familiak duen Luisen preso egon zeneko dokumentu militarretan, 87, 89 eta 76 preso-batailoietan egon zan lan behartuak eginez.

¹¹⁵ Juan Antonio Sáez García: “La fortificación de Vallespin en el alto de Gaintzurisketa-Gipuzkoa”, in *Errenteriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 21 zka, 2008, 203-259 or.

etortzen zian, pistola gerrixan ta militarrez jantzitxa. Meza emoten zozkun apaiz batek esaten zozkun: 'Zuetako batek iñor il badu, altxa dezala atza', ta guk esaten genduan geure artean: 'Bera da! 'Bera da!' Apaizak atza altxatzen zebalako".¹¹⁶

5

5.2/ 5.3 1940ko Mirandako fitxako bi aldeak. LAZF bilduma

Luis Hondarribitik Frantzia aldera ihes egiten saiatu zen beste bi presorekin, baina harrapatu zituzten: “Kapitañak esan zotsen: ‘Ori da! Ekarri ona!’. Kuartu batian sartu nindduen. Zaas! Zaas! Kapitañak ez zeban bat be asmatzen! Jarri tente! Sekulako jipoia emon zostan, ta ilea moztu zosten”. Nere buruari onela esan notsan: ‘Bukatu jata etxera juatekua. Ez naiz juango, ez Frantziara ez iñora”.¹¹⁷ Jaiz-kibelen jarraitu zuen eta hamabost egun pasa ondoren “portaera ona”-ren informea eman zioten. “Ta ez zan ezerbez gertau, kapitainak esan zoztalako: ‘Nun eon zara? Ni? Lagun bat bisitatzen! Baina, noren baimenarekin?’ Ta ori entzutean neure buruari esan nion ‘salbatuta nao’. Ni? Iñorena ez!’ Puf! Ta orrek salbau eiñ nindduen! Imajinau be ez zebeñ eiñ, guk ies eitteko asmua genduanik, Frantziara pasatzekoa”. Preso-soldaduek etxera bueltatzeko, “portaera ona” informeaz gain, herritik bidalitako beste hiru informe behar zituzten: Alkatearena, Falangearena eta Guardia Zibilarena: “Erriari informeak eskatzen zebeñ. Baña bazian informe bi guk ikusi eziñ giñuzenak: Falangearena eta Guardia Zibillarena. Ta oiekin gazte guztiok izorratzen giñuzten”.¹¹⁸

¹¹⁶ LAZ: BAT, 17 or. LAZF bilduma.

¹¹⁷ LAZ: BAT, 16-17 or. LAZF bilduma.

¹¹⁸ LAZ: BAT, 14 or. LAZF bilduma.

CAJA DE RECLUTA N.º 51
SAN SEBASTIAN

Se obliga que en la constatación se haga referencia al número y fecha de este escrito.

Por el presente se autoriza al Trabajador LUIS ARIZNABARRETA ZUBIAURRE, para que permanezca en su situación actual, hasta tanto se determine la militar que le corresponde y para lo que debiera presentarse en esta Caja antes de las trece del día 11 del actual.


San Sebastian 8 noviembre de 1.940
EL TENIENTE CORONEL JEFFE



PRIMO FERNANDEZ ORIG, COMANDANTE DE INFANTERIA Y
BATALLON DISCIPLINARIO DE TERA EN 76º FOROS N.º 87

CERTIFICO: Que según consta en los archivos de los Batallones de Trabajadores números 85 y 76, fusionados ambos en la actualidad con este de mi mando, el nombre LUIS ARIZNABARRETA ZUBIAURRE perteneciente al recenseño de 1.936, prestó sus servicios en calidad de Trabajador Peñonero de Guerra en la primeramente citada Unidad desde el día primero de Noviembre de mil novecientos treinta y nueve hasta el día siete de Abril último en que pasó destinado al Batallón n.º 76 por fusionarse con éste la Unidad de procedencia, causante baja en el referido Bn. 76 el día treinta de Mayo p. p. por ser guasto en libertad.

Y para que conste y a los efectos que proceda, extendo el presente en Rentería (Guzúscos) a diecisiete de Noviembre de mil novecientos cuarenta.




Don Rafael Joriza Cabro, Comandante de la 7ª Compañía de Trabajadores n.º 76

Certifico: Que el trabajador Luis Ariznabarreta Zubiaurre natural de Placencia de las Armas, provincia de Guipúzcoa, hijo de José María y Juana San José, ha observado buena conducta durante la permanencia en esta Compañía.

Y para que conste se pide el presente en Placencia de las Armas, a diecisiete de Mayo de mil novecientos cuarenta.

El Comandante



5.5/ 5.6/ 5.7 Luisen informe militarrek: 5.5) 51 Errekluta Kajara bidalia (1940-11-08). / 5.6) 76. zenbakidun Preso-Lan-gile Batailo Disciplinario informe militarrek (1940-05-27)/ 5.7) 89, 87, 76 bataioietan egon zeneko ziurtagiria. LAZB bilduma.

El Alcalde de Placencia, quecribe, hace constar que LUIS ARIZNABARRETA ZUBIAURRE, de esta vecindad, perteneciente al centro de la unión liberal, de esta villa, actuó de miliciano en esta villa, pero sin que exista cargo ni comisión alguna contra el mismo. Es de buena conducta.

Placencia, 26 de abril de 1941

Miguel Larrea

Los que suscriben, Martín Gervasio Barrocas y Domingo Ariznabarreta, afiliados a la F.E.T. y de las J.O.N.S., de esta villa, hacen constar que LUIS ARIZNABARRETA ZUBIAURRE, de esta villa, es persona de buena conducta, y no existe en esta villa ningún cargo contra el mismo en relación con el glorioso Movimiento Nacional.

Placencia, el 26 de junio de 1.940.

Martin Gervasio Barrocas *Domingo Ariznabarreta*

El Alcalde y Jefe Local de F.E.T. y de las J.O.N.S., que suscribe, hace constar que el nombre a quien se refiere el precedente informe, es de buena conducta.

Placencia, fecha ut supra.

Miguel Larrea

CERTIFICO: que el vecino LUIS ARIZNABARRETA ZUBIAURRE sus afiliado a la Unión Liberal, de esta localidad, y no durante el dominio rojo en esta villa, ni acusación alguna contra el mismo. Es de buena conducta.

Para que así conste. En Placencia a los tres días de abril de mil novecientos cuarenta.

Miguel Larrea

D. SR. CAPITAN GENERAL DE LA SEXTA REGION MILITAR

el SR. DON FERNANDO CAMPOS Y LOPEZ DE MOYUENGO.

ABSOLUTA, por haber permanecido (9) 18 años en el Servicio Militar desde la fecha de alistamiento en el artículo 18 del Reglamento aprobado por Decreto (4) 27 de Junio de 1936 y de Anastasio de Ariznabarreta Zubiaurre, Ayuntamiento de Placencia, nació el día de de 1. de su estado. Fue alistado en el recenseño de 1.936 y clasificado en el rango de Cabo, habiendo prestado los servicios que se expresan al dorso.

San Sebastián, a 1 de 1954


El Comandante

Rafael Joriza Cabro

5.8 / 5.9 / 5.10 / 5.11 // Luisen informe militarrek: 5.8) Portara onaren herriko informeak: Soroluzeko alkatearena (1940-04-26) / 5.9) Soroluzeko alkatea eta F.E.T. eta J.O.N.S.-en buruzagiaren ziurtagiria (1940-06-21)/ 5.10) Herriko alkate falangistaren beste ziurtagiri bat (1940-04-26). / 5.11) Lizentzia absolutua (1954-12-01). 18 urtetan ejerzitorako eskuragarri egon behar izan zuen (1936-1954). LAZB bilduma.

Preso	Provincia	Preso	Provincia
José Etxebarria	Leizor	Aramburu	S. S.
José Igarua	Leizor	Goiakobere	S. S.
Juan Iribar	Leizor	Otros de ...	
Perboral	Leizor	Portugalete (estipendiario)	
L. Ortuzar	Leizor	Logroño	
Felipe Cortazar	Leizor	Leizor	
Victoriano Equizabal	Leizor	Leizor	
Juan Muro	Leizor	Leizor	
J. M. Ibarzabal	Leizor	Leizor	
Paulino Algorza	Leizor	Leizor	
Estrella	Leizor	Leizor	
Ona	Leizor	Leizor	
Gariuso	Leizor	Leizor	
A. Carrizosa	Leizor	Leizor	
L. Ariznabarreta	Leizor	Leizor	
Ignasi Lasarte	Leizor	Leizor	
Manuel Corbes	Leizor	Leizor	
Vicente L. Etxabe	Leizor	Leizor	
Juan de la Cruz	Leizor	Leizor	
José Ugarte	Leizor	Leizor	
Fuetero	Leizor	Leizor	
Cabazón	Leizor	Leizor	
Roke Landarum	Leizor	Leizor	
Román	Leizor	Leizor	
Narciso Uribita	Leizor	Leizor	
Botica	Leizor	Leizor	
Zandoya	Leizor	Leizor	
Julián Ernaiz	Leizor	Leizor	
Gabriel	Leizor	Leizor	
Xabier	Leizor	Leizor	
Juan Gabarria	Leizor	Leizor	
Mikel Ametzola	Leizor	Leizor	
Vicente	Leizor	Leizor	
Nabarra	Leizor	Leizor	
Juan Ibarria	Leizor	Leizor	
Serafin Ramenteria	Leizor	Leizor	
Eugenio Iribar	Leizor	Leizor	
J. M. Suarez Lécua	Leizor	Leizor	
Toscano Viejo	Leizor	Leizor	
Rubio y Julián (jotero)	Leizor	Leizor	
Guarcionero	Leizor	Leizor	
José Asturiano	Leizor	Leizor	
Fidel Cristi	Leizor	Leizor	
Blanco	Leizor	Leizor	
Urrutavizcaya	Leizor	Leizor	
Tomas	Leizor	Leizor	
Alfonso Arago	Leizor	Leizor	
Etxebarria	Leizor	Leizor	
Emilio Etxebarria	Leizor	Leizor	
Antonio Inchausti	Leizor	Leizor	
Jesus	Leizor	Leizor	
Jesus Rodriguez	Leizor	Leizor	
José Ferrer	Leizor	Leizor	
Ormazabal	Leizor	Leizor	
Rabasa	Leizor	Leizor	
Andrés Alvarez	Leizor	Leizor	
Andrés Espinosa	Leizor	Leizor	
Brigades	Leizor	Leizor	
Calvo	Leizor	Leizor	
Barzocabal	Leizor	Leizor	
Hendikote	Leizor	Leizor	
Xabier	Leizor	Leizor	
Nikonor	Leizor	Leizor	
Honorato Kintana	Leizor	Leizor	
Ferrer	Leizor	Leizor	
Manuel Gutierrez	Leizor	Leizor	
Cirisco Cirión	Leizor	Leizor	
Manuel Arca	Leizor	Leizor	
Augusto Fernandez	Leizor	Leizor	
Asturiano Pellirrejo	Leizor	Leizor	
Guizuzas (dibujante)	Leizor	Leizor	

5.12 Luisek Preso-Langile Batailo Disziplinarioaren pre-sokideen zerrenda idatzi zuen. LAZF bilduma.



Preso: Asturias: 1-Trubia (20/10/1937), 2-Mieres (22-10/1937). León: 3-Villamanin. León hirian: 5-El Picadero, 6-San Marcos C. C. (1937/11). Santander: 7-El Dueso presondegia-Santoña. Bilbo-Bizkaia: 8-Larrinaga (kamioetan, 1937 urte bukaeran), 9-Deustoko unibertsitatea (ikasgeletan preso 1937-1938). **Lan behartuak:** 76, 87, 89 preso batailoetan lau urte: Bizkaia: 10-Miravalles, 11-Sudupe. Burgos: 10-Ungo, 11- Nava, Arija. Santander: 12-Ontaneda. Teruel: 13-Teruel hiria, 14-Aldehuela, 15-Cubla, 16- Mora de Rubiales. Soria: 17-Salinas de Medinaceli. Castelló: 18-Tormos del Cillar. 19-Guadalajara (Trintxerak). Cuenca: 20-Cuenca hiria (Gerra bukaera 1939/04/01). Teruel: 21-Cubla. Donostia-Gipuzkoa: 22-Loiolako ziegak. Burgos: 23-Miranda de Ebro (1940/11/19 arte). Gipuzkoa 1940: Soraluze, goardia zibilen kuartelean preso. 1940an Donostiako errekluta kutzara. Gipuzkoa (1940-1941) 24-Gaintzurizketa, 25-Jaizkibel.

6. EUSKADI ETA ESTATUKO BIKTIMEN DATUAK.

Gerra Zibilaren ondorioz biktimen kopuruei buruz asko idatzi da eta aipatzen diren datuak eztabaida-garriak dira. “Gogora” institutuak *Euskadin gerran zibilean hildako biktimak* argitaratutako ikerketan, 2022ko azaroaren 17ra arte bere datu-basean bildu dituzten hildakoen izenak 21.220 dira, eta ia 2.000 fusilatutakoak.¹¹⁹ Aipatzekoa da, 87 urte geroago, oraindik ez dela ezagutzen 7.795 pertsona non dauden lurperatuta. Eta gaur egun ditugun kopuruak ere ez dira behin-behinekoak, uste da kopurua handiagoa dela.

Estatuari dagokionez, Jose Alvarez Juncok historialariak bere azken liburuan, *Qué hacer con un pasado sucio*, hainbat ikerketen datuak aztertzen ditu, eta fronteetan gutxienez 200.000 pertsona hil zirela aipatzen du.¹²⁰ Erretaguardian ere krudelkeriagatik, hilketak eta ejekuzioak beste 150.000 izan ziren, guztira 350.000 gerrako biktima zuzenak. Gerrako hirurtekoan gainhilkortasuna 100.000tik hurbil egon zela aipatzen du. Egile honen arabera bonbardaketetan 10.000 pertsona inguru hil ziren. Kopuru horren barne, 1937ko otsailean faszisten eraso eta bonbardaketen ondorioz, Malaga-Almeria errepideko sarraskiaren 3.000-5.000 hildakoak daude.¹²¹ Orokorrean bonbardaketen biktimen kopurua ez da oraindik sakon ikertu eta kopurua handiagoa izan daitekela uste dute hainbat historialarik, 12.000 hildako baino gehiagora iritsiz.¹²² Emakumeari dagokionez Aranzadi Zientzia Elkarteke Lourdes Herrasti arkeologoak aipatu du, 2000 urtetik 2023 urtera arte estatuan 880 desobiratze baino gehiago egin direla, eta horietan 11.800 gorpu baino gehiago atera dituztela. Horietatik %2 eta 3aren artean emakumeak dira.¹²³

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, Alvarezek uste du hildako guztien kopurua 460.000ra iritsi zela. Kopuru horri gehitu behar zaizkio frankistek gerraosteko hilketak: 40.000 fusilatu, eta 15.000 hildako

¹¹⁹ Memoriaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen. Eusko Jaurlaritza. h. Sarrera 2022ko azaroaren 26an. https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_documentoak/eu_def/Euskadin-gerra-zibilean-hildako-biktimak.pdf

¹²⁰ Jose Alvarez Junco: *Qué hacer con un pasado sucio*, Galaxia Gutenberg, Barcelona. 2022, 107-109 or. Hildako eta errepresaliatuen datuak.

¹²¹ 1937ko otsailean, Espainiako Gerra Zibileko sarraskirik gordinena eta isilena izango zena gertatu zen. Kostaldetik, berrehun kilometrotara zegoen Almeriara iristeko asmoz, Malagatik ihesaldian zihozten 150.000 zibil ingururi, armada frankistak, armada italiarrak eta Condor legio alemaniarrak, etengabe eraso zieten lehorrez, itsasoz eta airez. Majada y Bueno: *Carretera*, 2006. / Bethune mediku kanadiarrak idatzi zuen: “Los fascistas les bombardeaban desde el aire y les disparaban desde los barcos de guerra” (Bethune: *Crimen*, 2004). Bethuneren laguntzailea zen Hazen Sizek, ihesaldiaren lekuko, 26 argazki atera zituen. Majada: *Fotografías*, 2017.

¹²² Xabier Irujo: “Atlas de los bombardeos en Euskadi (1936-1937)”, in *Gogora Memoriak bilduma*, Gogora Institutua, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2021, 569 or. Xabier Irujok Euskadin gertatutako bonbardaketa-operazioak (1936ko uztailearen 22tik 1937ko abuztuaren 18ra arte) lurraldeka eta erasoaldien arabera ikertu eta isladatu ditu atlas batean. Egilearen arabera bonbardaketak guztira 2.042 izan ziren: Araban 171, Bizkaian 811, Gipuzkoan 238, Nafarroan 6 eta Kantabrian 16. % 91,50 (1.870) matxinatuen bonbardaketak izan ziren, eta % 8,5 (172) errepublikarrena. Bonbardaketen datu kuantitatibo zehatzak eskaintzen ditu, baina biktimena ez.

¹²³ Lourdes Herrasti Erlogorri: “Gorputza eta Errepresioa”, in Ione Zuloaga Muxika: *1936-1945 artean errepresio frankista jasan zuten emakumeak*. *Gipuzkoako kasua*, (52-65), Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023, 57 or.

presondegietan eta konzentrazio zelaietan.¹²⁴ Guztira urte haietan Estatuan zegoen populazioaren %2a.

Gerra eta gerraondoko sistema sozio-ekonomiko errepresibo krudel horrek eragindako gosearen ondorioz, gaixotasunez hildakoen kopurua 200.000 ingurura iritsi zela dio Alvarezek. Gerra aurreko urteetan kartzeletan 13.000 preso zeuden eta 1939-1941 urteetan 500.000ra iritsi zen. 1939ko udan kartzeletan eta konzentrazio zelaietan 280.000 preso zeuden, eta horietatik, gutxienez, 10.000 gosez eta tuberkulosiaz hil ziren. 1940tik aurrera presoek, soldaduzka egin behar zutelako aitzakiaz, zigor berarekin jarraitu zuten. 1942an konzentrazio zelaietan oraindik 50.000 errekluta-presoa ziren. Errepublikarren erbesteratzeari dagokionez, 440.000 pertsona inguru Frantziara erbesteratu ziren. Erbesteratuen kopuru orokorra 650.000 izan liteke.

Preso eta fusilatuen artean emakumeen kopurua nabarmen gizonena baino txikiagoa izan zen; hala ere, "aurrekari politiko okerrak" zituzten emakumeei irain fisiko eta psikologiko bereziak egin zizkieten: errizino-purgak, ile-mozketak, sexu-irainak, paseoak, herritik baztertzea... Zenbait emakume bortxatu eta erail ondoren, kuneta edo hobi komunetara bota zituzten. Gerran eta gerraondoan gertatu ziren bortxaketak, askotan emakume eta haien familien intimitatean geratu ziren ezkutuan. Bortxaketa horien ondorioz etsai bortzatzailen semea izatekotan, estigma handia jasan zuten eta askotan euren herrietatik alde egin behar izaten zuten. Beste ohiko praktika izan zen emakume presori seme-alabak kentzea, frankismoak aukeratutako bikoteei adopzioan emateko. Biolentzia garai horietan emakumeek biktimizazio bikoitza jasan zuten, "gorria" eta emakumea izateagatik. Emakumeak ikustezinak izan dira gerraren biolentziaren hainbat arlotan, eta datu falta nabaria da.¹²⁵ Aipatu ditugun biktimen kopuru horiek ez dira behin-behinekoak, eta zenbat izan ziren ez dugu jakingo.¹²⁶

Agerian dago datu horiekin, urte luze haietan soldaduak egunero heriotza eta bizitzaren arteko mugan bizi izan zirela. Luis, frontean eta preso bezala egin zuen bidean, soldadu eta zibil askoren heriotzen lekukoa izan zen. Bere eskuizkribu, bertso eta audioan, etengabe hildakoen etengabeko jarioa aipatzen du, ahanzturan gera ez zitezen Luisek bere omenaldia egin nahi zien, bere sentipenaz eskainiz:

Egoera berdinak dira gure erriko edozein erri edo iritan: Arrate, Legutio, Lemoa, (...), Santander, Asturias... Bataila orietan guztietan gure gudari eta milizianoak Justiziaren eta Askatasunaren alde bizia eman zuten: frontean, presondegietan, exekuzio-piketeetan... Asko gaixotasunengatik azken hatsa eta adioa ematera etxera bialdu zituztenak, zahartzaroak garaiak eta duintasunez irauteko baliabiderik ere ez zutenak. LAZ: 2K, 7 or.

Ikusitako heriotzengatik Luisek "trauma osteko estresa"-aren kalteak jasan zituen. Larogei hamarkadan bere koadernoetan plaentziatar hildakoen bi zerrenda idatzi zituen. Lehengoan, bere mina era-

¹²⁴ Memoria historikoko elkarteek aipatzen dute oraindik kunetetan 88.000 hildakoen gorpuzkiak daudela.


¹²⁵ Herrasti: "1936-1945 Errepresioa", 52 or.

¹²⁶ Galaxia Gutenberg, Barcelona, 2022, 111 or. Hildako eta errepresaliatuen datuak.

kusten du hildakoen izenen ezabatze prozesuan, izenak behin eta berriro erreparatzean gogor tatxatzen zituelako baten bat falta ote zen egiaztatzeko. Bigarren zerrendan, plaentziatarren izenak hil ziren lekuaren arabera idatzi zituen:



6.1 Martin Zabala, Justo Legaristi, Avelín Ecenarro, Ramón Barrutia, Lorenzo Epelde, Baratera(?) Hnos. (Rufino), Santiago Ariznabarreta, Eusebio Cerrajón, Serapio Placencia, Serapio Bixaola (?) Muniozguren, Gabilondo (Aldasoro etxekoa); Armendi, Bonifacio Itxaurreondo (Intxaurrealde?), Sabin Garitainandia, Uretxe Jesús, Juan Azcarate, Ignazio Oregi, Juan Jose Lete, Manuel Múgica (Juan??), El andaluz, Ansola (Urrusti); Serafín Atxótegi; Manuel Lertzundi; ..x.. Legarizti (Justo?), ..x.. Gárate (Barberua) (Francisco?), Pasajes, Arrieta jostearua?, Alejandro Pínilla?, Luis Leturiondo (Oitxurri beltza), Garmendia, (Luis); Serafin Lizarralde; Narciso Guridi; Timoteo Ucin, Eulete Arzuaga, Fabian(?) Gogaskoetxea (?). LAZ: 1KT. 23 orr.



6.1 Etxano-Amorebietako batallan nere herriko ildakoak: Juanito Azcarate, ... Legaristi, Serapio Placencia, Ignacio Oregui. Leenago Arabako Legution eta inguruetan bere bizia batallan eskeini zituztenak: Lorenzo Epelde, Wenceslao Ondarza, Serapio Aristimuño, Ramón Barrutia, Garmendia, Avelín Ezenarro, eta beste batzuk. LAZ: 2KT. 9 orr.

Beste milaka soldaduk bezala, Juan Azcarate Treviñok dena galdu zuen: bere ametsak, bere esperantzak, bere etorkizuna... Izango zukeen bizitza osoa. Luisek, aldiz, aurrera jarraitu zuen, eta askotan bere zorte ona aipatzen zuen. Bere ondoan ehundaka milizianoen heriotzak ikusi zituen, baina bera bizirik atera zen. Minduta geratu zen, baina zorte handia izan zuela errepikatzen zuen: “An be zortea izan neban!”¹²⁷

¹²⁷ LAZ: BAT, 10 orr. Luis 1941eko abenduaren erdian konzentrazio eremutik atera zen askatasun balditzatuan. 1954ko abenduan “Lizentzia osoa” eman zioten, gerra hasi eta 18 urte beranduago, (1936-1954).

7. ETXERA BUELTAN BOST URTE FRONTEAN ETA PRESO EMAN ONDOREN.

Frontean hamabost hilabete eta preso lau urte pasa ondoren, 1941eko abenduan herrira bueltatzean, Luisek Juan Azcarateren heriotzaren lekukotza eman behar izan zuen Soraluzeko Udalean: “Gerra au gertau ta lau urtera, lekuko gisa eriotza-akta sinatu neban Soraluzeko udaletxian, gertaeraren egiaztagiri gisa”.¹²⁸

Lucas, Luisen anaia, preso bortxazko lanetan zigortua eta behartutako soldadutzan sei urtetan eduki zuten, 1943ra arte. Anastasia alargunak eta bi seme-alaba gazteenek, 1939an Frantziako erbestetik Soraluzera itzultzean, euren etxea hustua aurkitu zuten, dena lapurtu zietelako: “Familixiaren erretra tuak be oostu zoskuen”, kontatzen zuen minduta Luisen arrebak. Gerragatik erbestera joan behar izan zuten, pendiente zuten zor txiki bat ordaindu gabe utzi zuten.¹²⁹ Herritik kanpo egon ziren bitartean mailegu-emaileak bi edikto jarri zituen “Jose Mari Ariznabarreta Agirrebeñaren ondorengoan kontra”, *Rojos declarados en rebeldía* izendatuz.¹³⁰ Zor txiki batengatik erbestetik itzultzean, familiak ezer jakin gabe, euren kontrako epaiketa bat erabakita eta galduta aurkitu zuten.¹³¹ Dirutza ordaindu behar izan zuten epaiketaren kostuak ordaintzeko. Liskar honen atzean Espilla familiaren desjabetze interesa zegoen, hainbat errepublikar familiari gertatu zitzaizen modura. Zor txikia zena, handi bihurtu zen eta etxe ondoan zuten euren mantenurako baratze bakarra saldu behar izan zuten gastu guztiak ordaintzeko.¹³² Espillatarrak 1939an, bi seme zaharrenak preso egonda, egoera ekonomiko oso prekarioan geratu ziren. Hurrengo urteetan diru eskasia eta gosea protagonistak izan ziren Espillatarren familian. Gerran eta gerraondoak sortutako gaixotasunen ondorioz, Luisek hiru senide galdu zituen, 1942an ama, urte berean Jacinto anaia, eta 1945ean Lucas beste anaia. Aita ere 1936an zendua zenez, 1942an Luis, Maritxu arrebaren tutore izendatu zuten.

1947.eko maiatzaren lehenerako greba orokorra antolatu zenean Soraluzen, Luis antolatzailetako bat izan zen. Ondorioz, Guardia Zibilen jazarpena jasan zuen. Horiek herriko alkateari abisua pasa zioten Luis atxilotu behar zutela. Alkateak Luis babestu zuen goardia zibilen aurrean eta Uzin alkate karlistari esker atxiloketa horretaz libratu zen. Espillarra 18 urtetan “Baldintzapeko askatasunean” egon zen. Ondorioz, aldiro, Soraluzeko guardia zibilen kontrolpetik pasatu behar izan zuen. 1954ko abenduaren 1ean “Lizentzia absolutua” eman zioten.

¹²⁸ LAZ: 2KT, 9 orr.

¹²⁹ Gerra aurretik, 1935ean, aitari ebakuntza egiteko eskatu zuten maileguaren zati bat ordaindu gabe utzi zuten.

¹³⁰ Antonio Osa mailegu-emaileak bi edikto jarri zituen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zirenak. 1.a, *1938ko irailaren 30ean argitaratua*; 2.ena, *1939ko urtarrilaren 6an*. Iturria: Koldo Mitxelena Kulturguneko Liburutegia-Gipuzkoako Foru Aldundia. jasoa formato digitaletan 2022/07/7an.

¹³¹ 1938ko abenduaren 19ko sententzia. Dokumentuen bukaeran *Año de la Victoria* (Garaipenaren urtea) jartzen du. Iturria: *Amaia Iraola Ariznabarretak Soraluzen gordetako dokumentuak*.

¹³² Seme-alabak oinordekoz enajenatzeko: *20 de octubre de 1939 “Año de la Victoria”*: “*Solicitud de enajenar la huerta justificada la necesidad y utilidad de la enajenación de la huerta. Vendida a 27 de octubre de 1939 a Don Telesforo Amuchastegui*” (1940ko ekainaren 8koak dira eskriturak).


Juan Azcarateren familia gerraren ondorioz guztiz suntsituta geratu zen. 1937an, Juan bera Etxanoko frontean hilda, 1938an aita hilda edo desagertua preso zegoela, eta amari zer gertatu zitzaion jakin gabe, uste genuen Alberto, Juanen anaia, umezurtz geratuta, 1939an Belgikako erbestetik ez zela herrira itzuli. Bere datuak aurkitzeko zailtasun handiak izan ditugu, baina pista bat agertu zitzaigun Albertoren jaiotze ziurtagirian: 1972an Gipuzkoako Auxilio Sozialaren laguntza jaso zuela, Nazioen Fondoekin. Datu horri jarraituz aurkitu genuen Arrasateko Santa Ageda psikiatrikora bidalia izan zela eta bertan bizi izan zela 1987ko urriaren 23an hil zen arte.¹³³ Artikulua bukatuta genuenean Soraluzen aurkitu genituen bi lekukotzari esker jakin genuen, Alberto, ama eta osaba batekin bizi izan zela Soraluzen. Victorianarengan Eulogio senarra eta Juan semea gerran galtzeak sekulako eragin psikologikoa izan zuen. Memoria ofizial bakarra garaileena zenez, Francoren diktadurak inposatutako isiltasun garai luze haietan, Soraluzeko kaleetan frankisten aldekoengandik “gorri”-en kontrako etengabeko botere eta mesprezu erakustaldia bizi izan zen. Egoera sozial eta psikologiko horretan Victoriana ez zen etxetik ateratzen. Zoritxarrez ama eta semea, biak batera, 1949an Santa Agedako psikiatrikora eraman zituzten, 60 eta 23 urte zituztelarik. Bertan bizi izan ziren hil arte.¹³⁴ Garai hartan Santa Agedan emakumeak eta gizonak bi psikiatrikotan bereiztuta mantentzen zituzten; beraz, ama eta semea ezin izan ziren elkarrekin bizi.¹³⁵

Azcarate Treviño familiarentzat Gerra Zibilak familiaren hondamendia suposatu zuen. Ondorengorik gabeko familia izan zenez, familiak jasandako historia gogor eta lazarri hau kontatzeko, inor ez. Baina, Juanitoren historia ez zen gerra urteetan bukatu. 2023ko abenduaren 10eko zenbait egunkaritan argitaratu da, artikulu hau bukatu eta ondorengo egunetan, Aranzadi Zientzia Elkarteak 1937ko maiatzaren 16an Etxanoko batailan hil ziren miliziano eta gudarien gorpuzkiak desobiratzen ari direla Zornotzako hilerriko hobi handi batean. Euren asmoa, bertan dauden gorpuzkiak ateratzea, identifikatzea eta duintasunez lurperatzea da. Gorpuzkin horien artean Juan Azcarate Treviñorena dago. Datu hori baieztatzeko, Luisen hildakoen zerrendak erabilgarriak izan dira. Orain Juanito identifikatu ahal izateko, ADN laginak hartu behar dira konparaketak egiteko.

¹³³ Jaiotze ziurtagirian bi datu horiek agertzen dira bi zigiluetan. Heriotz ziurtagirian agertzen da Arrasaten hilobiratu zela, Santa Agedako psikiatrikoa bizileku izanda. (Aranzadiko Ione Zuloaga ikertzaileak 2022ko irailean bidaliak).

¹³⁴ Arrasateko erroldan: 1975ko abenduaren 12koa. Alberto Azcárate Treviño agertzen da, Santa Agedako Psikiatrikoan 1949 urtetik aurrera: (168 liburua-5. Distritoa-002 Sekzioa-Sekzio barruko orrialde 0049) 49–504, Arrasateko Udal Artxiboan, 2023/09/11an.

¹³⁵ Parisko Artxiboan Alberto Belgikara bidalitako umeen zerredan agertzen da. (Intxorta 1937 taldeko Juan Ramon Garaik bidalitako informazioa 2022aren bukaeran). // Artikulu hau bukatzeaz genuenean, Alberto Azcarate ezagutu zuen Luzia Etxabe Zubizarretarekin (Arrasate 1926–Soraluze 2023) topo egin genuen Kursaalaren, 2023ko martxoaren 18an, Gerrako umeen omenaldia ospatu zenean. Berak esan zigun, Alberto bere osaba Satur eta amarekin bizi izan zela denbora labur batean, Victoriana, ama, eta Alberto, semea, Santa Agedara eraman baino lehen. Luzia ezin izan genuen elkarrizketatu, apirilaren 13an zendu baitzen, 96 urte zituela. Amaia Laskurain alabak, amarengandik jasotako informazioa bidali zigun emailaz 2023ko maiatzaren 10ean. Maiatzaren 13an Soraluzen Carmen Treviño ezagutu genuen, eta berak egiaztatu zigun ama eta semea, biak batera, Santa Agedara eraman zituztela. Carmen Treviñoren aita, Roque Treviño Maiztegi, Albertoren lehengusua, ustez, bere tutore legala izan zen hil arte.



7. 1) Gogora Institutuan *Euskadin gerra zibilean hildako biktimak* informearen zerrendan Juan Azcarateri buruz dagoen informazioa. A” letraren azken orrialdean.

https://www.gogora.euskadi.eus/webgog00-cogogora/es/contenidos/recurso_tecnico/gogora_aplik/eu_def/index.html?page=8&let=A (Sarrera 2024-01-16)



7. 2) Aranzadi eta Euskal Prospekzio Taldea lanean soldadu eta gudarien gorpuzkien desobiratzean, Zornotzako hilerrian aurkitu den fosan. Deia 2024/01/07. Iban Gorriti

8. ERRESISTENTZIAK, BABES PSIKOLOGIKOAK ETA ERREPARAZIO SOZIALA.

Lusek, frankismoak gerraondoan ezarri zuen sistema errepresibo eta atzerakoiaren aurrean erresistentzia pertsonalak garatu zituen.¹³⁶ Oposizioa eta protesta desagerrarazten zituen diktaduran, langileen aldeko errebindikazioetan murgilduta ibili zen klandestinitatean, eta Francoren hauteskunde antidemokratikoetara ez zen inoiz boto ematera aurkeztu. Gerran eta gerraondoan bizitako gertaera lagarrien ondorioz sufritu zuen traumagatik, modu konsziente edo inkonszientean, bere babes psikologikoak ere sortu zituen. Terapia psikologikorik gabeko garaian eta errepresio bortitzak inposatutako isiltasunaren menpean, barnean zeukan min handia arintzeko txikitatik maite zituen musika eta kantua erabili zituen. Gitarra, kantuak eta bertsoak terapia askatzaileak izan ziren bere oreka psikologikoa mantentzeko. Estrategia hori funtsezkoa izan zen, kantatzea zerbait fisikoa edo somatikoa baita, emozioak eta sentimenduak azalaratzen dituen.

Franco hil ondorengo urteetan ere, beste gudakiderekin batera gerrari buruzko solasaldietan parte hartu zuen. Garai berean zenbait eskuizkributan gerrako esperientziak biltzen hasi zen, idaztea ere berarentzat terapia garrantzitsu bihurtuz. Nahiz eta Lusek, autosendaketa moduan, bere babes psikologikoak eta erresistentziak eraiki, gerra eta bortxazko lanak utzitako zauriak ez ziren guztiz osatu eta hil aurreko urtean, Alzheimerrak jo zionean, gerrako trauma berriro agertu zitzaion sintoma psikiatrikoetan.

Giza Eskubideen jarraibideak betetzearen ildotik, Lusek “Egia, Justizia eta Erreparazioa” eskubideen zertzeladak besterik ez zituen ezagutu. 1990ko Estatuko legean eta 2002ko Euskadiko dekretuan errekonozimendu soziala eman nahi zitzaie, indemnizazio baten bidez, gerran eta gerraostean presondegietan egondakoei.¹³⁷ Preso-Langile Batailoetako milaka gizonak, ia esklabutzara iritsi arte zigor gogorrenak betetzen egon zirenak, ezin izan zuten ziurtatu preso egon zirela; beraz, ez zuten ez indemnizaziorik, ez errekonozimendu sozial publikorik jaso.¹³⁸ Luis ere kasu horretan egon zen, behin eta berriz ziurtagiririk lortu ezinik. Azkenean Guadalajarako Artxibo Militarretik Luisen ize-nean espediente bat iritsi zen, eta horrek familiari eskaera egiteko aukera eman zion.¹³⁹

2003ko irailean, Luisen etxera, Eusko Jaurlaritzako indemnizazioa jasoko zuenaren konfirmazioa iritsi zen, baina berandu. Lusek ez zuen errekonozimendu hori ezagutu aurreko hilabetean zendua

¹³⁶ Frankismoaren lehen indultua 1948ko udan izan zen, *Estado de guerra* (Gerra-egoera) amaitu zen urtean. *Movimiento Nacional*-arekin lotuta ez zeuden alderdi, sindikatu eta elkarten debekuak, orandik indarrean jarraitzen zuten Franco hil zen egunean, 1975eko azaroaren 20an.

¹³⁷ 1990ko Estatuko Presupuesto Orokorra eta 42/1992 neurri fiskaletako legeetako baldintzak: 3 urte edo gehiago presondegi batean egondako ziurtagiria, 65 urte beteta izatea 1990/12/1ean. Horientzat 1.000.000 pezeta eta 200.000 pezeta urte gehigarri bakoitzeko. Hil izan balitz, emazteak izango luke horretarako eskubidea. Urriaren 15eko 46/1977 legearen kasuetan, eta bere ondorengoei eskaera 1990/XII/31a baino lehen egin bazen./ Eusko Jaurlaritzak EHAA-ko 280/2002 azaroaren 19ko dekretuan, disposizio orokorretan, 46/1977; Amnistia legearen ondorioz Gerra Zibilean preso egon zirenentzako konpensasioak legeztatu zituen.

¹³⁸ Bortxazko lanetan, herriz-herri ibili ziren presoek ez zituzten presondegietan inskribatzen; beraz, ziurtagiririk ez.

¹³⁹ Luisen azken eskaera 2002/11/28, sarrera 2002-12-5, Eusko Jaurlaritzan.

baitzen.¹⁴⁰ 2005ean, legeak baieztatzen zuen moduan, bere alargunak eta diskapazitatea duen alabak jaso zuten.¹⁴¹ 2021era arte, ikerketa honetan murgituta egonda, ez dugu jakin Guadalajarako Artxibo Militarretik bidalitako espediente hura ez zela Luisena, Lucas anaiarena baizik. Anaien izenen antzekotasunagatik erru bat sortu zuten artxiboan eta Luisek, 1945ean hildako anaiaren espedienteari esker, justiziaz merezitako indemnizazioa jaso zuen. Beste milaka Preso-Langile izandakoek, agrario konparatibo ikaragarria jasan zuten. Biktimizazio bikoitza honengatik oso minduta bizi ziren hil arte. Gerraren basakeriak eta izugarrikeriak ezagutu ondoren, Luis “Espilla”, hiru gaztetxoek bizitzak salbatu zituen mutiko zoriontsu haren bihotz erdia, ez zen gerratik itzuli, han betirako geratu zen. 1941eko abenduan konzentrazio eremuan libre utzi zutenean, etxera iritsi eta bere min handia zenbait bertsotan isladatu zuen, gerraren ondorioz hildako guztien oroimenez, Juanito Azcarate Treviño laguna horien artean.

“GURE ILDAKOERI” BERTSO-KANTA¹⁴²

“Gaur etxeratu naiz, baña ez askatasun osoakin. Nere biotza oso minduta dago, bai, lagun eta anai maiteenak gaur uts eginez, milla moduz il ziralako. Zuen baimenaz utzi nazazute, lerro auek abestutzen, zergatik *azkenez* bertso auek ez dira besterik omenaldi eta otoi bat zuen arimaren alde”.

I	II	III
Mendi gañetan eta bide baztarretan ainbat ta ainbat il ziran kartzel barrenetan. Goietatikan bera zigorrez besteak gaixorik etorriak morduak il ziran penarekin lertuak urringu lurretan.	Ama negarrez dago semeeri elduta instante hontan aita su izkillututa (afusilatuta) AMA! deitzen diote gerritik elduta AMA! berriro ere Gure AITA! Nun da? olaxe ume asko dira geldituta.	Orrela il ziraden millaka askoak anai maitetsuenak betiko galduak. Baño gure biotzak eurekin osoak askatasuna gaitik denak ildakoak. Gorde orain berentzat isil minuto bat.

Koldaritz. Soraluze´n 1941garren abenduan.

¹⁴⁰ Luis Ariznabarreta Zubiaurre 2003ko abuztuaren 23an zendu zen Gasteizen, 88 urte betetzear zegoenean.

¹⁴¹ *Rosita Orbea Gallastegi osintxuarrarekin ezkondu zen 1944an Soraluzen, eta zortzi seme-alaba izan zituen.*

¹⁴² Bertso kanta euskaraz eta elegia gaztelaniaz entzuteko, “Sorapedia” Soraluzekeo webgunean:

Gure hildakoeri:

https://www.sorapedia.eus/images/9/98/Gure_ildakoeri._Abestia_%28Bego_Arinabarreta_2020%29.mp3

A nuestros muertos:

https://www.sorapedia.eus/images/f/f5/A_nuestros_muertos._Abestia_%28Bego_Ariznabarreta_2020%29.mp3

9. HAINBAT GOGOETA ONDORIO GISA:

Artikulu hau ikerlan pertsonal baten emaitza izan da aitaren testigantza autobiografikoak agertu zirenetik, eta horiek oinarri hartuta. Bere lekukotzetan aipatzen dituen gertaerak eta Gerra Zibileko gertaera historikoak Ipar Fronteari buruzko bibliografia zabalean eta hainbat milizianoen testigantzetan sakonduz egiaztatu dira. Protagonistek bizi izan zituzten gertaera historikoak gaur egunera ekarri dira lekukotza-iturri historiko eta antropologiko gisa. Aitaren lekukotza horien bidez, Juan Azcarate eta Luis Ariznabarreta lagunen historiak erakutsi dira, Gerra Zibilak ehunka mila biktimarengan eragin zuen traumaren adibide. Juanitoren historian, haren heriotzak bere itxaropen guztiak suntsitu zituen; eta bere aitaren heriotzarekin edo desagertzearekin batera, dolu laugarria utzi zuen amaren eta anaia-aren psiketan, euren historiak isiltasunean geratuz. Gure aitarena, aldiz, bizi-iraupen historia izan zen, berak bere testigantza partzialetan eskaini ahal izan ziguna, horietan bere trauma agerian utziz.

Ezinezkoa zirudien une batean gure aitak jakin zuen, modu kontzientean edo inkontzientean, bide terapeutiko propioa aukeratzen bere mina lantzeko. Berak ez zuen bere iragana ahaztu edo ezabatu nahi izan, eta bere “historia” ondo gorde zuen: preso egondako ziurtagiri militar frankista guztiak, presokideen argazkia, eskuizkribu autobiografikoak, hildakoen zerrendak eta presokideenak... Bertsoak, kanta, musika, gitarra... Bere karga psikologikoa arintzeko bakarkako estrategia horietaz aparte, alderdi politikoak legezatu zirenetik, *taldearen balio terapeutikoan* oinarritutakoak ere erabili zituen; hala nola, gudakideen asteroko solasaldien errituala, bilakaera politikoaren interesa, Eusko Alkartasuneko abesbatza...¹⁴³ Carlos Blasco Olaetxea entitate aurrean testigantza emateak ere nolabaiteko errekonozimendu soziala suposatu zuen aitarentzat, berak elkarrizketan harriduraz azaleratu zuena: “Sekulan ez giñukeen pentsauko ta, olako egun bat elduko zanik”.¹⁴⁴ Nahiz eta estrategia horiek guztiak erabili, gerran eta gerraostean bizi izandakoak marka ezabaezina utzi zion bere psikean. Mariana Wikinski psikoanalista argentinarrak dio Gerra Zibila hasi zela biktimengan eragindako harridurarekin; ustekabeko eta ikaragarriko esperientzia traumatiko indibidual eta kolektibo hartarako ez baitzuten prestakuntza materialik, ezta psikologikorik ere, gertatutakoa sinbolizatzen. Milizia boluntarioek Errepublikari eskaini zioten defentsak, altxamendu militarren kontra, nolabaiteko zentzu ideologikoa eman zien, baina ekintza kolektibo hori ez zen nahikoa izan gerrako gertaera traumatikoek biztanleengan izan zituzten ondorio larriei zentzua emateko: milaka gudakideren heriotzak, fronteetan sortutako elbarritasun larriak, fusilamenduak, desagertzeak, urte luzeetako espetxealdiak, esklabo-lanak, torturak, gosea, pobrezia, zigor umiliagarriak, bortxaketak, estigma, alarguntasuna,

¹⁴³ *Taldearen balio terapeutiko* konzeptua. Lucia Edelman eta Diana Kordon: “Superar el trauma en colectivo”, in Almudena Hernando (koord), Lucila Edelman, Diana Kordon, Nora Levinton, Anna Miñarro, María Remeses, eta Mariana Wikinski: *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, (103-130 or.), 109 or. Edelman eta Kordon, biak medikua, psikiatra eta psikoanalista argentinarrak dira.

¹⁴⁴ LAZ: AAT, 12 or.

umezuratasuna, disidentearen aurkako jazarpena, erbestea...; ondorio horiek guztiak, osotasun fisiko eta psikologikorako etengabeko “arrisku-sentimendu”-an jasandakoak. Errepresio horrekin batera, diktadura frankistak ezarritako isiltasuna jasan zuten; eta beldurra, kontrol-arma gisa erabilia.¹⁴⁵ Biztanleria, gizarte eta ekonomiaren suntsipen horren ondorioz, biktimek eskalaz kanpoko exijentzia jasan zuten psiketan, trauma sakona sortuz euren belaunaldiarengan eta, baita, beste era batean bada ere, hurrengo belaunaldiengan ere.¹⁴⁶

Aditu argentinarrak dioenez trauma ez da gertaera traumatikoa, biktimen psikismoan uzten duen marka ezabaezina baizik.¹⁴⁷ Psikearen babes-geruza zeharkatzen du, oreka pertsonala hautsiz eta defentsa-mekanismoak sortuz. Hitzetan sinbolizatu ezin dena inkontzienteak diren sintoma somatikoen bitartez kanporatzen da: beldurrak, isiluneak, sufrimendua, larritasuna, antsietatea, errua, lotsa, amesgaiztoak, insomnia, errepikapen obsesiboak, nahasmendu psikiatrikoak, memoriaren alterazioan..., horiek guztiak traumaren mezu sinbolikoak bihurtuz.

Sendatzeko ezinbestekoa da “hitz egitea” eta “entzuna” izatea. Lekukotza emateak entzuten dizun norbaiten aurrean eragin psikoterapeutikoa du. Baina, testigantza hori terapeutikoa izan dadin baldintza egokietan egin behar da: konfiantzazko gune batean, bakarka edo taldean, entzun eta interpretatu egingo duen aditu batekin elkartrukean... Baina hori hitzen bidez bakarrik ez, gertaera traumatikoez gain, haien testura emozionalak ere berreskuratu behar dira testigantzetan.

Lekukotza ematea biktimarentzat terapeutikoa izateko, analisia eta interpretazioa beharrezkoak dira. Horietan, “ezkutuan” dagoenaren balioa aztertzea ezinbestekoa da: isiluneak, ahanzturak, esaten ez dutena... Beste adierazpen emozional batzuk ere interpretatu behar dira. Hala nola hasperenak, tonua, erritmoa, isiltasuna, etenaldiak, errepikapenak: “An asko il zian, asko il zian, asko. An ildako asko!” Horiek guztiak denbora luzez barnean gordetako adierazpenak dira. Lekukotzetan ere “disoziazioak” gertatzen dira. Adibidez, gure aitaren kasuan, bizitakoa hitzetan jarri ezin duenean, modu inkontzientean, emozioa eta mina sortzen ez dizkioten pasadizoetara desbideratzen du.

Erabilitako hitzen analisia beste elementu esanguratsua da. Adibidez Luisen audioan, “erailak” hitza erabili beharrean, “hildakoak” erabiltzen du, “beste”-enganako deskalifikaziorik ez dira agertzen... Nahiz eta ideologikoki inolako zalantzarik gabe kokatuta egon, elkarrizketaren hainbat zatitan “aurrean, euren kontra, duen bera bezalako soldadu arrunta”-rekiko identifikazioa erakusten du, gertan askotan galtzen den elkartasunerako eta enpatiarako gaitasuna erakutsiz; hala nola, Lemoatxeko batailan erreketen gaztearekin topo egin zuenean, eta beste une batzuetan frontean eta preso zegoela.

¹⁴⁵ Ana Miñarro: “El hilo infinito del genocidio español”, in Hernando, Almudena (koord) et al, *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, (131-162 or.), 131 or.

¹⁴⁶ Mariana Wikinski: “El trauma y la construcción del testimonio”, in Hernando, Almudena (koord) et al, *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, (31-58 or.) 33-35or.

¹⁴⁷ Wikinski: “Trauma”, 95 or.

Badago osasun mentala berreskuratzeko funtsezkoa den beste zeregina traumaren elaborazioan, gogoratzeaz gain, "egia" kontatzea.¹⁴⁸ Horri dagokionez, esanguratsua da Fraserrek bere liburuan, *Recuérdalo tú, recuérdalo a otros*, dioena. Hispanista honek azpimarkatzen du egin zituen 300 elkarrizketetan lekuko batek ere ez zuela aitortu inor hil zuenik.¹⁴⁹ Baieztapen horrek harritu gaitu, gure aitaren audioan heriotzetan parte hartu izanaren lekukotzak agertzen direlako; adibidez, Lemoatz eta beste batailetan. Testigatza horiekin, aitak, sarreran azaleratu ditugun zalantza eta galderei erantzun die. Hori dela eta, Juan eta gure aitaren bizitza-historien "egia" gure artikulura ekartzean, geuk ondorengoek ere mina har dezakegu, baina min osasuntsua da.¹⁵⁰

Agerian dago Errepublikarekiko leialak izan ziren biktimek ez zutela euren traumak elaboratzeko aukerarik izan, eta haietako askori barruan itsatsita geratu zitzaiela itxi gabeko zulo moduan. Barnekoa kanporatu ezinik, testuinguru historikoak ez zien elaborazioa egiten utzi, ez gerraostean, ez diktadura frankistan, ezta trantsizioan ere; hiru garai horietan biktimizazio hirukoitza jasanez. Miñarrok aipatzen duenez, "irabazle"-en ondoan zeuden biktima gehienei euren kalteak errekonozitu egin zitzaizkien, Francoren diktaduran eurentzat legez onartutako erreparazio material eta sinbolikoa egon zelako.¹⁵¹ Errepresaliatuentzat, aldiz, egon zen errekonozimendu apurra oso berandu iritsi zen eta horietako asko baztertuta geratu ziren. Ez zuten ez egiarik, ez justiziarik, ez erreparaziorik izan. Bestalde, zientzia psikiatrikoak gerrako erbestean urte haietako profesionalik aurreratuenak galdu zituen. Psikiatria zaharkitua geratu zen, erregimen frankistari lotua, eta "gorrien" psikologiari buruzko ideia aberranteen menpe.¹⁵² Miñarrok dio *Movimiento Nacional*-arekin bat ez zetorrena, gaixotasun mental gisa estigmatizatzen zela.¹⁵³ Ideia horiekin herritar errepublikanoak arreta jasotzeko aukerarik gabe geratu ziren.¹⁵⁴

Garai haietan emakumea gizona baino gutxiago tratatua izan zen. Eurei dagokionez aipatu nahi nuke, 2023an ikerlan hau aurrera neramanean, Arrasateko erroldetan Santa Ageda psikiatrikoko datuak aztertzen, deigarria egin zitzaidan konprobatzea gerra ondorengo urteetan psikiatrikoan emakumeen kopurua hirukoiztuta edo lauhoiztuta zegoela gizonena baino. Ikertzeko pendiente dagoen galdera bat geratu zitzaidan buruan: Zenbat emakume eraman zituzten psikiatrikoetara gerrako ondorioengatik? Gaur egun ezinbestekoa da gerrako hainbat arlotan emakumeari buruz ikertzea, eurak, parte hartzeaz gain, haren ondorioak ere jasan zituztelako. Generoa ez da analisi-kategoria gisa agertu

¹⁴⁸ Miñarrok: "Hilo", 157, 159 or.

¹⁴⁹ Fraser: *Recuérdalo*, 15 or.

¹⁵⁰ Alejandro Casonaren esaldia, moldatuta: <https://www.youtube.com/shorts/i9y57hdOe4s> (16/11/2023)

¹⁵¹ Miñarrok: "Hilo", 151 or.

¹⁵² Ikus Antonio Vallejo-Najera psikiatraren ideia eta esperimentuak. Vallejo-Najera "Gerrako preso errepublikanoei buruzko azterlan bat zuzendu zuen 1938an, marxismora zein degenerazio zekarren zehazteko. Alegia: gene gorriaren bila zihoan». https://eu.wikipedia.org/wiki/Antonio_Vallejo-N%C3%A1jera (Sarrera 2024/01/24)

¹⁵³ *Movimiento Nacional* izeneko alderdi politikoa, Frankismo garaian bakarra izan zen.

¹⁵⁴ Miñarrok: "Hilo", 148 or.

gerra zibileko azterlanetan. Adibide gisa, ikerketa horietan emakumeen aurka erabili zen indarkeriaren ikusezintasuna. Emakumeekiko zor unibertsala da hori, orain arte gutxi ezagutu baita emakumeen kontrako biolentziaz gatazka armatuetan.¹⁵⁵

“Belaunaldien arteko trauma” arloko ikertzaileek diote gerra eta diktadura frankistaren ondorioz traumatizatutako gizartea garela. Gure arbasoen bizitzak, hondamendi hartan harrapatuta geratu ziren bizitzak izan zirela, eta ondorioak gaurko gizartearengan ere transmititu direla. Biktimen barnetik kanporatu gabeko inpaktua eta diktaduran bizi izandako isiltasunaren eragina, guk jaso ditugula herentzia modura, eta ikuspuntu psikologikotik hurrengo belaunaldietara ere pasatuko direla, sintometan kanporatuta.¹⁵⁶ Aditu hauek belaunaldien teorizazioa eta sailkapena egiten dute sintomen arabera: lehen belaunaldian "esan ezina izan dena" bigarreanean "izendatu ezin dena" bihurtzen da, hirugarreanean "pentsatu ezin dena", eta "erabat ezkutatuta eta estalita dagoen hori" laugarreanean.¹⁵⁷ Uste dute gure gizartean agerian geratzen direla sintoma horiek; adibidez, iritzia emateko, salatzeke eta boterea zalantzan jartzeko beldurra; boteretik datorren "egia" onartzeko joera, herritarren polarizazioa, errealtate politikoaren pertzepzio aldatua, desberdin pentsatzen duena etsai gisa hartzea, gorroto-diskurtsoak, besteenganako konfiantzarik eza, erabiltzen diren esaldi hutsalak: "arazoak etxe barnean konpontzen dira", "ez hitz egin", "ez erakutsi zuk pentsatzen duzuna"...¹⁵⁸ Horietako sintoma asko modu inkontzientean transmititzen zaizkie hurrengo belaunaldiei, eta errepikatzen dira zergatiak eta jatorria jakin gabe. Gaur egun estatuko komunikabideen eta partidu politikoen arteko eztabaidak entzutea besterik ez dago, konturatzeko gaur egun zauriak sendatu gabe daudela eta iragana orainaldian dugula.

Miñarrok idatzi du erantzukizun moral kolektiboa (politikoa) beharrezkoa dela frankismo garaitik eraikitako diskurtso sozialaren logikarekin apurtzeko eta gerran eta diktaduran gertatu zena azaleratzeko. Ezinbestekoa da eztabaida publikoetan gogoeta egitea, erantzuleen inpunitatearekin bukatzeko errepresaliatuen memoria historikoa berreskuratzea, “Egia, Memoria eta Erreparazio” legeak eta ikerketetarako baliabideak sustatzea... Hainbat adituek diotenez denbora pasatzen uztea, horrela dena konponduko denaren ustetan, erru handia da. Zer garen jakiteko, nondik gatozen jakin behar dugu. Ikertzaileak dioenez, iragana ulertzeak gizarte justuagoa eraikitzea ahalbideratuko liguke.

Memoria belaunaldien arteko kontua da, eta euren arteko transmisioan, gerrako trauma jasan zuen belaunaldiaren eta hurrengoaren artean, lotura sakonak sortzen dira; izan seme-alabak, bilobak edo birbilobak. Mariana Hirsch irakasle eta ikertzaileak *La generación de la posmemoria* liburuan dio,

¹⁵⁵ Queralt Soler Barjau: “Emakumek gerrateetan, ikuspegi historikotik begiratuta: ikustezin bihurturiko biktimak”, in Ione Zuloaga Muxika: *1936-1945 artean errepresio frankista jasan zuten emakumeak. Gipuzkoako kasua*, (10-25), Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023.

¹⁵⁶ Miñarrok: “Hilo”, 132 or.

¹⁵⁷ Miñarrok: “Hilo”, 143-144 or.

¹⁵⁸ Hernando: Trauma, 21 or. // “Desenterrar la palabra”, *Nadie hablará de nosotras* podkasta, 2024ko urtarrilaren 21ekoa. <https://open.spotify.com/episode/2Q7RyScUpkM697QXFu7pLM>

gertaera traumatikoen oroitzapenek bizirik dirautela, batez ere zuzenean bizi izan zituztenen bizitza markatzeko, baina baita zuzenean bizi izan ez zituztenenak markatzeko ere, izan euren ondorengoak edo garaikideak. Hauek gertaera traumatiko horiek jasotzen dituzte, ez zuzenean biziz, baizik eta irudi, objektu, portaera, dolu edo errelatoren bidez; familiaren eta gizartearen kulturaren barruko herentzia gisa transmitituta.¹⁵⁹ Artikulu hau horren adibide da.

Zuzeneko biktimak jada ez daude gure artean, baina euren testigantzak artxiboetan eta familia-memoretan gordeta ditugu. Beharrezkoa da gaurko belaunaldiok gure arbasoen memoriaren lekukoa hartzea eta haiek elaboratu ezin izan zutena guk egitea, historia traumatiko horien zeregin pedagogikoaren transmisioa hurrengo belaunaldiengan bermatzeko. Aipatu bezala, gertaera historikoez gain, testura emozionalak azaleratzen dituen transmisioa izan beharko luke. Afektiboa eta gure bitartekotza izango duen memoria horrek "egia" ezagutzen eta osatzen lagunduko du, era berean, justizia egiten. Bukatzeko azpimarratu nahi nuke Juan eta aitaren gerrako esperientzietan sakontzean Gerra Zibilaren gordintasuna, garai hartako gizartearengan eta gaurkoarengan ere, ezagutzen lagundu digu; aitaren bizipenak errealitate historikoarekin nola lotzen diren deskubritu digu; eta batez ere, gure aitaren memoria berreskuratuz bera eta bere belaunaldikoak hobeto ulertu ditugu. Erraza ez da izan "Subjektibotasun antropologikoa" eta "Historia" lotzea, baina oso aberatsa izan da. Azken finean antropologia egitea baita: "bestea" aztertuz, nork bere galdera sakonak erantzutea".¹⁶⁰

¹⁵⁹ Marianne Hirsch: *La generación de la posmemoria. Escritura y cultura visual después del Holocausto*. Carpe Noctem, Madrid, 2021 (1^a 2012an). Hirsch-ek sortutako "Posmemoria" konzeptua, memoria kolektiboaren ikerketak bideratzeko funtsesko erreferentia bihurtu da.

¹⁶⁰ Begoña Ariznabarreta Orbea: "Antropologo natiboaren inguruko hausnarketa zenbait", in *Sancho el Sabio Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 22 zk., Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz, 2005, 45-56 or., 55or. Artikulu horretan antropologo natiboaren figura aztertzen da *kanpoko* edo *bertako* izatearen dileman.

ESKER ONAK

Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioako Jesus Zubiaga zuzendariari eta bertako langileei, euren laguntza jaso dudana arreta eta interesagatik.

Aranzadiko Ione Zuloagari eta Intxorta 1937 taldeko Juan Ramon Garairi eskeini zizkidaten Azcarate familiaren dokumenturengatik.

Soraluzeko zenbait herritarrei: Etzoz Larrañaga Orbea, Amaia Iraola Ariznabarreta, Luzia Etxabe, Amaia Laskurain Etxabe eta Mari Carmen Treviño.

Miguel Argibay lagun margolariari portadan agertzen den irudi ederragatik. Zenbait argazkiren konponketan laguntza eman didatenei: Amaia Ibergallartu eta Itziar Ugartemendia.

Prozesuaren une diferenteetan artikularen irakurri ondoren eman dizkidaten iradokizun egokiengatik, lagun eta senideei: Miel Anjel Elustondo Etxeberria, Xabi Lamikiz Gorostiaga, Laura Iriarte Ariznabarreta, Iñaki Mtz. de Luna Prz. de Arriba, Karmele Mendizabal Mendizabal, Aitor Orobiogoikoetxea Lopez eta Patxi Salaberri Muñoa. Frantsesera eta ingelesera itzulpenetan laguntza jaso dudanei: Xabi Lamikiz eta Laura Iriarte.

2020-2021 urteetan audioaren hainbat zati transkribatzen edo zuzentzen lagundu didaten familiako guztiei: Angel Ariznabarreta Orbea, Mila Navarro Busto, Ainhoa eta Maitane Ariznabarreta Navarro, Amagoia Ariznabarreta Ibañez de Gauna, Naiara Ormazabal Ariznabarreta eta Laura Iriarte Ariznabarreta.

Eta batez ere, eskerrak eman ahozko edo idatzizko lekukotzak utzi zizkigutenei: Luis Ariznabarreta Zubiaurre, Antonio Loinaz, Alejandro Lluvia, Manuel Goenaga, Juan Ibarrola Orueta eta Rosario Orbea Gallastegi.

Euren historiak artikuluan agertzen diren guztiei: Eulogio Azcarate Bustinduy, Victoria Treviño Azcarate, euren semeak Juan eta Alberto; Jose Mari Ariznabarreta Agirrebeña, Anastasia Zubiaurre Odriozola eta euren seme-alabak Luis, Lucas, Jacinto eta Maritxu, Chang Aking txinatar boluntarioa eta beste biktima asko. Euren oroimenez idatzi da artikulu hau.

10. ITURRIAK

10.1 AHOZKO LEKUKOTZAK ETA ESKUIZKRIBUAK

ARIZNABARRETA, Luis: Audioa, Irargi-Bergara. Euskadiko Artxibo Historikoan. Blasco Olaetxea fondoan. Archivo Sección oral: Luis Ariznabarreta 021.022 Co1/10. A (LAZ AAT) eta B (LAZ BAT) audioetan, (1984 inguruan). Familiak transkribatutakoak 2021ean.

ARIZNABARRETA, Luis: Eskuizkribuak eta koadernoak (1979tik aurrera), familiak transkribatutakoak 2021-2022an. / Luis preso egon zeneko dokumentu militarrik 1937-1941 / Alabak grabatutako audioa 1992an./ 1941eko “Gure ildakoeri”, bertso-abestia, eta “A nuestro muertos” elegia.

AZCARATE eta ARIZNABARRETA familien jaiotze eta heriotz ziurtagiriak. Ariznabarreta familiak gordeak, 2022-2023 Aranzadik bidalitakoak eta Elizbarrutiko webean hartutako datuak: <https://dokuklik.euskadi.eus/sacramentales/sacramentalesbilatzailea>

ETXABE, Luzia: Ahozko testigantza, Donostian, 2023/03/18

GOENAGA, Manuel: “MAOC-2 Gipuzkoa bataloiko ofizialaren testigantza”, (Azurki: Maizales, 253-254 orr). Oviedon 1937/02an.

IRAOLA ARIZNABARRETA, Amaia: Ariznabarreta Iraola familiaren dokumentuak, Soraluzen. LLUVIA, Alejandro, “Amuategiko milizianoaren testigantza”, Euskadiko Artxibo Historikoa. Badator-040-060. C.Blasco Olaetxearen funtsa. Kutxa 06. Expediente 07. 1980-82 ingurukoa, 95 - 102 orr.

LOINAZ, ANTONIO: MENDIZABAL ELIAS, Amaia: *Azpeitiarrak en la Guerra de España*, Testimonios de Antonio Loinaz Etxaniz. Uztarria Kultur Koordinakundea, 2006. Azpeitia-Gasteiz.

TREVIÑO, Carmen: Ahozko testigantza, Soraluzen, 2023/05/13.

ORBEA GALLASTEGI, Rosario: Audioa. Luisen emaztea. Alabak grabatutakoa, 1993.

10.2 BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE LECUMBE, Jose Antonio: *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*, Foca, Madrid, 2004, [1.a Buenos Aires, 1943].

ALVAREZ JUNCO, José: *Qué hacer con un pasado sucio*, Galaxia Gutenberg, Barcelona, 2022.

ARIZNABARRETA ORBEA, Begoña: “Antropologo natiboren inguruko hausnarketa zenbait”, in *Sancho el Sabio Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 22 zk, Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz, 2005.

AURREKOETXEA, Gotzon: “Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak”, in *Uztaro*, 23. zk, UEU, Bilbo, 1997.

AZURKI, Aitor: *Maizales bajo la lluvia. Testimonios de los últimos gudarís y milicianos de la Guerra civil en Euskadi*, Irún, Alberdania, 2011.

BETHUNE, Norman: *El crimen de la carretera Málaga-Almería*. Caligrama, Benalmádena-Málaga, 2004.

BLASCO OLAETXEA, Carlos: *Diálogos de guerra*. Euskadi 1936, Usurbil, DL, 1983.

CAUNEDO DOMINGUEZ, Amaia: “Las investigaciones sobre la guerra civil y la represión en Asturias en la Universidad de Oviedo”, Universidad de Oviedo, 2019, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7457046> (Sarrera: 2023/12/1)

DE BLAS, Juan Antonio: *El Mazuco. La defensa de lo imposible. La guerra civil en Asturias*, Júcar, Gijón. 1986.

DELGADO SAHAGÚN, Carolina: “Análisis del testimonio como fuente oral: género y memoria”, in *Encuentro de Latinoamericanistas Españoles: Viejas y nuevas alianzas entre América Latina y España*, (1137-1145 or.) (12. 2006. Santander), SL, España, 2006. <https://shs.hal.science/halshs-00104016>

EGAÑA, Iñaki (koor) et al: *1936. Gerra Zibila Euskal Herrian*, 7. eta 8. tomoak, Aralar, Andoain, 1999-2000.

EDELMAN, Lucia, KORDON, Diana: “Superar el trauma en colectivo”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 103-130 or.

FRASER, Ronald: *Recuérdalo tú, y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*, Planeta, Crítica, 2009 [1.a 1979].

FERNÁNDEZ LÓPEZ, José Ángel: *Historia del campo de concentración de Miranda de Ebro (1937-1947)*, Ed. J. A. Fernández. Miranda de Ebro, 2003.

GUTIERREZ AROSA, Jesús: *Gerra Zibila Eibar eta Elgetan*, Eibar eta Elgetako udalak, Eibar-Elgeta, 2007.

HERRASTI ERLOGORRI, Lourdes: “Gorputza eta Errepresioa”, in Zuloaga, Muxika, Ione: *1936-1945 artean erreprezio frankista jasan zuten emakumeak*. Gipuzkoako kasua, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023, 52-63 or.

HERNANDO, Almudena: “Porqué un libro sobre el trauma?”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 9-30 or.

HIRSCH, Marianne: *La generación de la posmemoria. Escritura y cultura visual después del Holocausto*. Carpe Noctem, España, 2021 [1.a 2012]

IBARROLA GUTIERREZ, Juan: *Kirmentasunaren ordaina. Gure historiaren 75 urte. Errepublikako Gudarosteko XXII. Saldoko Buruaren oroitza*, Juan Ibarrola, Arabako Foru Aldundia, 2019.

IRUJO, Xabier: “Atlas de los bombardeos en Euskadi (1936-1937)”, in *Gogora Memoriak bilduma*, Gogora Institutua, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2021.

LEIZAOLA EGAÑA, Aitzpea: "La antropología a pie de fosa. Diálogo con Francisco Etxeberria y Francisco Ferrándiz sobre la memoria de la guerra civil", in *Ankulegi: gizarte antropologia aldizkaria*, 10 zb., Donostia, 2006.

LEIZAOLA, Aitzpea: ERRAZKIN, Mikel eta AGIRRE, Juanjo (Koord.). 2009, “Memoria historikoaren berreskupenarena eta gertakari traumatikoen transmisioaren erronkak. Gerra Zibileko lekukotza-bilketarako ohar metodologikoak”, in *1936ko Gerra Euskal Herrian. Historia eta memoria*, UEU, Bilbo.

LEVINTON Nora: “Miedo y rabia en tiempos de pandemia. El trauma y sus secuelas”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 59-76 or.

MAJADA NEILA, Jesús, BUENO PÉREZ, Fernando: *Carretera de Málaga-Almería, febrero 1937*, Caligrama, Benalmádena-Málaga, 2006.

MAJADA NEILA, Jesús: *Las fotografías de la Desbandá*, Caligrama, Benalmádena-Málaga, 2017.

MIÑARRO, Anna: “El hilo infinito del genocidio español”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 131-162 or.

OSTEN, Manfreud: *La memoria robada: los sistemas digitales y la destrucción de la cultura del recuerdo: Breve historia del olvido*, Siruela, Madrid, 2008.

PECIÑA, Mikel: “Recuérdalo tú y recuérdalo a otros de Ronald Fraser, o la memoria popular de la Guerra Civil”, in *Muga*, 4. zk, Iparraguirre. Bilbo, 1980.

PRESTON, Paul: *La guerra civil española 1936-1939*, Plaza y Janes, Madrid, 1987 [1.a 1986].

PUJADAS MUÑOZ, J.J.: *El método biográfico. El uso de las historias de vida en las ciencias sociales*. CIS. Madrid, 1992.

RABINOW, Paul: *Reflexiones sobre un trabajo de campo en Marruecos*. Júcar, Madrid, 1992.

RENESES, Maria: “No estás sola. La acción colectiva frente a los malestares contemporáneos”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 77-102 or.

SÁEZ GARCIA, Juan Antonio: “La fortificación de Vallespin en el alto de Gaintzurisketa (Gipuzcoa)”, in *Errenteriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 21 zk, 2008.

SOLER BARJAU, Queralt: “Emakumek gerrateetan, ikuspegi historikotik begiratuta: ikustezin bihurturiko biktimak”, in *1936-1945 artean errepresio frankista jasan zuten emakumeak. Gipuzkoako kasua*, (10-25), Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023.

SONTANG, Susan: *Ante el dolor de los demás*, Debolsillo, Barcelona, 2022 [1.a 2003].

SORALUZE 1936 LAN-TALDEA: *Isiltasuna hausten. 1936ko Gerra Soraluzen*. Soraluzeko Udala eta beste. Soraluze, 2015.

STRAUSS, Lévi: *Tristes Trópicos*, Círculos de lectores, Paidós, Barcelona, 1994 [1.a 1955].

TABERNILLA, Guillermo: “La caída de Bilbao. El principio del fin del frente Norte”, in *La Guerra Civil en Vizcaya, 1937, Desperta Ferro*, 9 zk., Madrid, 2021, [1.a 2015], (38-45 or.).

TSOU, HWEI-RU ETA TSOU, LEN: *Los brigadistas chinos en la guerra civil. La llamada de España (1936-1939)*, Catarata, Madrid, 2013. Jatorrizko izenburua: *Ganlan Guiguan de Zhaohuan: Canjia Xibanya Neizhan de Zhongguoren (1936-1939)*, Taipei, Taiwán, [1.a 2001].

UNED BERGARA- Eukal kultur departamentua: *Bergarako Euskera*. UNED-Bergara (Gipuzkoa), Bergarako udaletxea, 1988.

VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Milicias en Euskadi. Los problemas de la militarización”, in *Historia Contemporánea*, 9 zk, Leioa, UPV. Bilbo, 2015.

VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Voluntarios internacionales y asesores extranjeros en Euskadi (1936-39)”, in *Desperta ferro. Historia Contemporánea*, 34. zk, Leioa-UPV, Bilbo, 2007.

VV.AA: *Gerra Zibilak Euskadin izan zuen bilakaerari buruzko iturri dokumentaleen eta bibliografikoen gida (1936-1939)*, Euzko ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Gasteiz, 2009.

WIKINSKI, Mariana: “El trauma y la construcción del testimonio”, in *Trauma. Herencia, palabra y acción colectiva*, Traficantes, Madrid, 2023, 31-58 or.

ZULOAGA MUXIKA, Ione: *1936-1945 artean errepresio frankista jasan zuten emakumeak. Gipuzkoako kasua*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023.

10.3 ARTXIBATEGIAK eta WEBGRAFIA

AVILAKO ARTXIBO MILITARRA (AMA). <https://patrimoniocultural.defensa.gob.es/es/centros/archivo-general-avila/> (Eskaera 2021/05)

ARRASATEKO UDAL ARTXIBOA. ERROLDAK, (Presentziala, 2023/09/11).

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: <https://www.aranzadi.eus/eu/memoria-historikoa-eta-gertuko-berreskuratzen>.

DONOSTIAKO ARTXIBO HISTORIKOA: <https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento>.

1938 ESPAÑA PRODUCTORA, Prisioneros de guerra dokumental frankista, Garcia Viñolas zuzendaria, Departamento Nacional de Cinematografía, Cardeñako San Pedro, Burgos, 1938. 35mm formatu estandarra, zuri-beltzean soinuarekin, iraupena 14'.

https://www.youtube.com/results?search_query=prisioneros+de+guerra+filma+frankista.+1938.

EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA. Erregistro sakramentalak. <https://dokuklik.euskadi.eus/>.

EUZKADI ROJA egunkaria (190 zk.) 1937/05/2. Alberto Azcarate. (sarrera: 2022/09)

GIPUZKOAKO ARTXIBO HISTORIKOA: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gipuzkoako-probintziako-artxibo-historikoa>

GOGORA- MEMORIAREN BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA: Euskadin gerran zibilean hildako biktimak. 2020. Eusko Jaurlaritza. https://www.gogora.euskadi.eus/aa82-aplikazi/es/contenidos/recurso_tecnico/gogora_aplik/eu_def/index.html // https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_dokumentuak/eu_def/Euskadin-gerra-zibilean-hildako-biktimak.pdf (sarrera 2022/11/26)

GORRITI, Iban: “Etxeberria confirma la segunda fase de la exhumación en la fosa más grande hallada en la CAV”. “Aranzadi y Euskal Prospekzio Taldea trasladan los restos, (...) del cementerio de Amorebieta a Donostia” in DEIA, Bizkaia, 7/01/2024.

<https://www.deia.eus/politica/2024/01/07/etxeberrria-confirma-segunda-fase-exhumacion-7714918.html>

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA: Parisko artxiboan aurkitutako fitxa baten argazkia. (2022/10)

KOLDO MITXELENA KULTURGUNEKO LIBURUTEGIA - Gipuzkoako foru aldundia. GAOn argitaratutako ediktoak: 1938ko irailaren 30ekoa, eta 1939ko urtarrilaren 6koa.

PARES ARTXIBO ATARIA: CDMH. Ariznabarreta Zubiaurre eta Azcarate Treviño familien fitxak. <http://pares.mcu.es/ParesBusquedas20/catalogo/show/12090540?nm>. Luis Ariznabarretaren fitxak: 1. fitxa, CDMH. DNSD- Secretaría, Fichero, 4, A0148502. // 2. fitxa, CDMHDNSD- Secretaría. Fichero, 4, A0148577. S.M.- Carp. 1390.-Exp.23. (Santander. Carpeta. 7. Serie. “D”. Fol. 173.)

NAPAL, Jorge, “Gipuzkoa rinde homenaje a sus ‘niños de la guerra’ in Noticias de Gipuzkoa, 17/03/2023. (sarrera 20/03/2023) <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2023/03/17/gipuzkoa-rinde-sabado-homenaje-ninos-https://www.uniovi.es/6578803.html>

SORAPEDIA, Soraluzeko web-a (Gipuzkoa): Luis Ariznabarretaren biografia, bertsoak eta abestiak. (2022-2023). [https://www.sorapedia.eus/wiki/Luis_Ariznabarreta_\(eu\)](https://www.sorapedia.eus/wiki/Luis_Ariznabarreta_(eu)). Ariznabarreta, Luisen bertso-kanta: “Gure ildakoeri”, 1941. Letra eta doinua Sorapedian. https://www.sorapedia.eus/images/9/98/Gure_ildakoeri._Abestia_%28Bego_Arinabarreta_2020%29.mp3 // “A nuestro muertos” elegía: Letra eta doinua Sorapedian. https://www.sorapedia.eus/images/f/f5/A_nuestros_muertos._Abestia_%28Bego_Ariznabarreta_2020%29.mp3

10.4 “TXINATAR BAT EUSKAL ARMADAN” gaiari buruzko argitalpenak:

Chang Aking eta Luis Ariznabarretari buruz argitaratutako guztia, argitaratu diren dataz ordenatua.

RU-NI, HWEI: 在西班牙-“Oroitzaztarna Espainian”, in *南方周末* astekaria, Txinan, 2021eko otsailaren 18an, www.sanchoelsabio.eus
<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/h./andle/10357/60020/>

TSOU, NANCY (RU-NI, HWEI), 2021eko maiatzaren 13an, “Aking Chan, a Chinese Volunteer in the Basque Army”, in *The Volunteer* EB aldizkarian. <https://albavolunteer.org/2021/05/reme>
<https://www.berria.eus/paperekoa/1918/030/001/2021-05-19/mbering-aking-chan>

ELUSTONDO, MIEL: 2021eko maiatzaren 19an, “Xangai eta biok” in *Berria* egunkaria.
https://www.berria.eus/bizigiro/xangai-eta-biok_1293989_102.html

UNAMUNO, EGOITZ: 2021 “Txinatar bat Euskal Armadan” in *Pilpilean* (20210625) eta *Alea* (2021 07 24) aldizkarietan: <https://alea.eus/komunitatea/Plaentxia/1626937756049-txinatarra-gerra-ariznabarreta>

“GASTEIZ” IRRATIA: 2021, Begoña Ariznabarretari eginiko elkarrizketa (2021 07 10),
<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-vitoria/programas/dejate-llevar/audios/detalle/8181984/audio-la-amistad-de-chino-y-vasco-que-lucharon-en-guerra-civil/>

“EUSKADI” IRRATIA: 2021, B. Ariznabarretari eginiko elkarrizketa (2021 08 14),
https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/amarauna/oso/8251261/nire-aitaren-historia-ezagutzea-lortu-dut-eta-baita-gerrakide-izan-zuen-txinatarrarena-ere/utm_source=botonmovil&utm_medium=whatsapp&utm_campaign=whatsapp

ASOCIACIÓN DE PROMOCIÓN E INTERCAMBIO HISPANO-CHINO: *Las Brigadas Internacionales y los Voluntarios Chinos* erakusketa ibiltaria. Comisarios Chen Qun y Jesus Majada. Madrilen 2021/09, eta Rivas-Madrilen 2023/02.

SORAPEDIA- Soraluzeko webgunea (Gipuzkoa): Luis Ariznabarretaren biografia, bertsoak eta abestiak (2022-2023). [https://www.sorapedia.eus/wiki/Luis_Ariznabarreta_\(eu\)_%28B._Ariznabarreta_eta_J._C._Astiazaran%29](https://www.sorapedia.eus/wiki/Luis_Ariznabarreta_(eu)_%28B._Ariznabarreta_eta_J._C._Astiazaran%29)

PHOENIX TV: *Chinese Volunteers in the International Brigades, Spanish Civil War (1936-1939)*. Hong Kong, 2021. Txinatar dokumentala:
https://youtube.com/watch?v=XPSjWA9wDx8&si=iVK64xy7hFOnOn_Q. Ingelesez azpтитuluko bertsio laburtua, Len Tsou, 2023/06.



Luis Ariznabarreta Zubiaurre “Espilla”, 1944an Soraluzen, 1993ean Gasteizen.